

**SUHAS, Antoine : « Eskualdun baten letra mila bederatzi ehun eta hamazazpian »**

Stolberg, 1917-08-01. PK 1094/95/1103. Lautarchiv, Humboldt-Universität zu Berlin.

**TRANSKRIPZIO ORTOGRAFIKOA**

Dokumentuen formaren eguneratze eta bertsio elektronikoen egilea: **Jasone SALABERRIA**. Euskal Ikasketetan Doktore.

Koordinaketa: **Maite DELIART**. Ahozko ondarearen balorizazio arduraduna (EKE).

*Oharra : Jatorrizko eskuizkribua errespetatua izan da, puntuazioa, marrak eta ortografia akatsak barne. Grabatua izan ez den gutun pasartea urdinez ezarria da ; eta gorriz, grabaketan ez den esaldia, ezin irakurriak diren hitzak eta ulermenerako gehituak.*

<b>Jatorrizko eskuizkribuaren transkripzioa.</b>	<b>Egungo arau ortografikoetara (euskalkien / batuaren estandarrena) egokitu bertsioa.</b>
<p><b>Eskualdun baten letra ; Mila bederatsi ehun, eta hamazazpian ?</b></p> <p>Eskualdun nais etorkisunes. Eta nahis egungo egunean, herritik urrun naisen, familiarik, ahaidietarik ; Esagun eta adiskidé orotarik berhéchia, eskuaraskoak, diré, ene gogo, sendimendu eta isaité gusiak ; bihots eta arimas estekatua nais, Ene Aitak eta amak erakatsi lehen mintsaiani ; Ene lehengo orhoitsapen gochoak eta ametsak berak, Eskuaras heldu saiskit, bistarat ; Ene bisimende huntako, Sorigaits ooren arintserat, Eta ene hasbeherapen ooren aphasegatserat ; Lapurdin sorthua nais ; Mila sorti ehun eta lauetan hogoi eta bortsean, hasilaren hilaren sortzian ; Arrangoisko herrian, Ailus handia deithua den etchean ; Sortses, aita bardostarraren, eta ama Ustaristarraren semea ; Ene haurtasuneko egun dohatsuak ereman ditut heien aldean ; ignorantsiako demborak aphur bat bethéché artean, Eta arrasoineko adinak ethorri arthean ; Ene ogiaren irabasteko heinerat heldu nintsenean, muthil juan nintzen, aitaren sorherrirat, laborantsako etchalde handienetarik</p>	<p><b>Euskaldun baten letra mila bederatziehun eta hamazazpian</b></p> <p>Eskualdun naiz etorkizunez eta nahiz egungo egunean herritik urrun naizen, familiarik, ahaideetarik, ezagun eta adiskide orotarik berexia, euskarazkoak dira ene gogo, sentimendu eta izate guztiak. Bihotz eta arimaz estekatua naiz ene aitak eta amak erakatsi lehen mintzairari. Ene lehengo oroitzapen goxoak eta ametsak berak euskaraz heldu zaizkit bistarat, ene bizimende honetako zorigaitz ooren arintzerat eta ene hasbeherapen ooren apazegatzerat.</p> <p>Lapurdin sortua naiz, mila zortzi ehun eta lauetan hogeita bortzean, hazilaren hilaren zortzian, Arrangoitzeko herrian, Ailus handia deitua den etxean. Sortzez, aita bardoztarraren eta ama uztariztarraren semea. Ene haurtasuneko egun dohatsuak eraman ditut heien aldean, inorantziako denborak apur bat betexe artean eta ene arrazoineko adinak etorri artean. Ene ogiaren irabazteko heinerat heldu nintzenean, mutil joan nintzen aitaren sorterrira laborantzako etxalde handienetarik batetarat,</p>

batetarat, Nun iragan bainintuen bi urthe ; Handik lekhura yarri nintsen postillun herrian berean urthé batentsat ; Gero ideiak emaiten sauntan besala, eiherasain ofisioan sarthu nintsen, ene hirugarren eta asken muthil lekhuana. Ongi ethorri ona isatu nuen. **Lehen egunetik beretik, Nausi etchekondren ganik ; Eta mainatua nintzen haur guastatu baten paré ; Nik ere ene aldetik ene esagutsa** eta ikhustatea bethetsen nuen ene ahal ooren arabera ; Eta gisa oros arras ontsa elgar aditsen ginuen ; ser nahiren gainean ; Hots, aspaldian lehiatsen nuen etcherat erori nintsen hirugarren aldi, behin betikots ; Es desaketsuet gordé, laster lakhetu nintsela familia errespetagarri, arthatsu eta maitagarri haren artean.

Etcheko alaba gastenarekin, egin nintuen laster esagutsak ; Eta esagutsen arthean laster adiskidantsak hartu suen bere lekhuana ; Elgar maithatu ginuen ; Eta atchiki sortsi urthé, den mendreen makhurrik gabé Amodiosko errespeturekin ; Fidelki atchikis espos lagun isaiteko eginikako bothua ; Sakramendu hori irugiki ginuen onheski eta susenki, ohoreski egin agintsak bethes ; Eskontsako legea erresibitu ginuen Eriaroaren lauean ; Mila bederatsi ehun eta hamarreen ; Nik hogoi eta borts urthetan eta harek hogoi eta bietan ; burhaso ooren baiamenarekin ; Eskontsa horrek ekharri situen darraiskon ondorioak ? Alaba baten aita jarri nintsen Ustailaren hilaren hogoi eta sortsi ; Mila bederatsi ehun eta hamekan ; Eta seme baten, Mila bederatsi ehun eta hamabian ; buruilaren hilaren hogoi eta bederatsian ; Gerostik hunat es nais hoik bien menbro beisik ; Eta sinhesten ahal (**dusue**) gochoki baneramala ene bisia ; bi aingeru horiek sortsi gerostik ;

Seren lokharri batek atchikitsen nau askarki estekatua horien amodioari ; Ene amets eta gogoeta gusiak horiendako diré. Ene bihotseko iguskia horien baithan dago, Eta es desaket erran soin gogor eta idor isan den berechtasuneko kolpea enetsat, duela bispahirur urthe |

**1.** Beras jendé onak : Nahis es naisen jakintsun handietarik ; Deliberatsen nais erran gogo ditudanen erraitera ene simplesian ahalas garbiki ? Mila bederatsi ehun eta hamasaspian garé ; Eta nahis egun huntarat arthean ; irabatsi dudana ogia gogor isan den ; Ene bisian orain arthean jasain dudana bihots minik, minena eta chorrotchena, isan da duela laster hirur urthé,

non iragan bainintuen bi urte. Handik lekora jarri nintzen postillon herrian berean urte batentzat. Gero ideak ematen zidan bezala eiherazain ofizioan sartu nintzen, ene hirugarren eta azken mutil lekuan. Ongi etorri ona izatu nuen **lehen egunetik beretik nagusi etxekoandren ganik, eta mainatua nintzen haur gastatu baten pare. Nik ere ene aldetik ene ezagutza** eta ikustatea betetzen nuen ene ahal ooren arabera, eta gisa oroz arras ontsa elgar aditzen genuen zernahiren gainean. Hots, aspaldian lehiatsen nuen etxerat erori nintzen hirugarren aldi behin betikotz. Ez dezakezuet gorde, laster laketu nintzela familia errespetagarri, artatsu eta maitagarri haren artean.

Etcheko alaba gaztenarekin egin nituen laster ezagutzak, eta ezagutzen artean laster adiskidantzak hartu zuen bere lekua. Elgar maitatu genuen eta atxiki zortzi urte, den mendren makurrik gabe amodiozko errespeturekin, fidelki atxikiz espos lagun izateko eginikako botoa. Sakramendu hori iguriki genuen oneski eta zuzenki, ohorezki eginez agintzak betez. Ezkontzako legea errezibitu genuen errearoaren lauean mila bederatziehun eta hamarreen. Nik hogeita borts urtetan eta harek hogeita bietan, buraso ooren baiamenarekin. Ezkontza horrek ekharri zituen darraizkon ondorioak. Alaba baten aita jarri nintzen uztaillaren hilaren hogeita zortzi, mila bederatziehun eta hamaikan; eta seme baten, mila bederatziehun eta hamabian, buruilaren hilaren hogeita bederatzian. Geroztik honat ez naiz horiek bien menbro baizik, eta sinesten ahal duzue goxoki baneramala ene bisia bi aingeru horiek sortuz geroztik. Zeren lokharri batek atxikitzen nau azkarki estekatua horien amodioari. Ene amets eta gogoeta guztiak horiendako dira. Ene bihotseko eguzkia horien baitan dago. Eta ez dezaket erran, zoin gogor eta idor izan den berexatasuneko kolpea enetzat, duela bizpahiru urte.

**1.** Beraz jende onak, nahiz ez naizen jakintsun handietarik, deliberatsen naiz erran gogo ditudanen erraitera ene sinplezian ahalas garbiki. Mila bederatsi ehun eta hamazaspian gara. Eta nahiz egun honetarat artean irabazi dudana ogia gogor izan den, ene bizian orain artean jasan dudana bihotzminik minena eta xorrotxena izan da duela laster hirur urte, mila

Mila bederatsi ehun eta hamalau ; Nahis delako urtea sen lasgarria ; Eta mintsatu nahi naitzen orena, isan den enetsat lastimagarriena ; Ene bisia baderamat halarikan ere, hirur urthes gibelerat, Eta ene gogoia ohiko, eta orhoitgarrisko memento dohakabe hartarat ? Aintzin bidean aithortzen dut lehenik ; jada ohartuak saisten besala ; Aiphatugo ditudan nahigabé horiek gerthatu arthean : Deskantsus eta soriones bethea bisi nintzela ene familiaren arthean estitasunes inguratua ; ene egoitsa maitearen atherbearen pean ; Banuen, duda gabé sobera Boskario atsegin horien erdian hola jumpatua bisitzeko ; Seren iraupena ongi laburra isan da ene lehiaren arabera. Doidoia lau urthé suen ene bisi dohatsuan sartseak eta etheko gidamen jartseak ; Etsuen orainon hogoi eta hamalau hilhabethé baisik aitaren isenaren hartseak Nois eta ere atsekabé dorphe bat ethorri baitsen, ene bisi mende miragarriaren askarki frogatserat.

**2.** Ustailaren hondarrerat sen sorigaitz haukien hastapena ; Jendea ikharatua sagon bere isaité gusias egun hetan heltsen siren berri hitch eta dembora berean lotsagarries ; Asko bide bihurtunetan eta gurutsaduretan ikhusten siren osteka bilduak, han hemenka saintsu, eta khechu ; Bakotchak beren geroko penes orhoituak ; Nahis etsen orainon deus finkamendurik agertu gisa hortan beren sentsuen aintsinerat durdusatseko

**3.** Urthé hartan berean sen, Abustuaren lehenean ginen larumbat arratsaldean ; Egun hura, soinak utsi behar baitsuen, orhoitsapen dolorosik, Eskualdunen arteko bihotsetan besala, Eropako asko herrialdetako bihotsetan ; Ordu artean dembora, gordin eta hots egonik ; Egun hartan iguskia jailgi sen ederrik, eta distirentik ; choratsen situela bere Menean hatcheman ahalako gausa suerte gusiak ; iguski begian aurkhitsen siren etchiek iduri suten urhé kolores emokatuak sirela ; Eta teila gorrisko hegatzek berek hartzen suten kobré saharren egité gusia ; Eskila dorretako silharresko oilarrek dirdiratsen suten mirail handi batsuek besala ; Munduaren lau basterretarik etsen hedoi bat agertzen ? Urthé hartan etsen orainon seruko urdina hain garbi agertu, nola egun hartan ; Ongi ethorria sen egun eder hura, seren eskual herria, Laborantsa handietako laborarien herria, lan handietako sasoin bethean siren ? Lau orenak

bederatziehun eta hamalau. Nahiz delako urtea zen lasgarria, eta mintsatu nahi naizen orena izan den enetsat lastimagarriena, ene bisia baderamat, halarikan ere, hirur urtez gibelerat eta ene gogoia ohiko eta oroitgarrizko memento dohakabe hartarat. Aintzinbidean aitortzen dut lehenik, jada ohartuak zareten bezala, aipatu gogo ditudan nahigabe horiek gertatu artean, deskantsuz eta zorionez betea bizi nintzela ene familiaren artean ezitasunez inguratua, ene egoitza maitearen atherbearen pean. Banuen, duda gabe, sobera bozkario atsegin horien erdian hola jumpatua bizitzeko, zeren iraupena ongi laburra izan da ene lehiaren arabera. Doidoia lau urte zuen ene bizi dohatsuan sartseak eta etheko gidamen jartseak. Ez zuen oraino hogeita hamalau hilabete baizik aitaren izenaren hartseak, noiz eta ere atsekabe dorpe bat etorri baitzen ene bizimende miragarriaren azkarki frogatzerat.

**2.** Ustailaren hondarrerat zen zorigaitz haukien hastapena. Jendea ikaratua zegoen bere izate guziaz egun hetan heltzen ziren berri hits eta denbora berean lotsagarriez. Asko bide bihurtunetan eta gurutzaduretan ikusten ziren osteka bilduak han hemenka zaintsu eta kexu, bakotxak beren geroko penes oroituak, nahiz ez zen oraino deus finkamendurik agertu, gisa hortan beren zentzuen aitzinerat durduzatzeko.

**3.** Urte hartan berean zen, abustuaren lehenean ginen, larumbat arratsaldean. Egun hura, zoinak utzi behar baitzuen oroitzapen dolorosik Euskaldunen arteko bihotzetan bezala, Europako asko herrialdetako bihotzetan. Ordu artean dembora gordin eta hotz egonik, egun hartan eguzkia jalgi zen ederrik eta distirentik, zorutzen zituela menean atzeman ahalako gauza suerte guziak. Eguzki begian aurkitzen ziren etxeek iduri zuten urre kolorez emokatuak zirela, eta teila gorriko hegatzek, berek, hartzen zuten kobre zaharren egite guztia. Ezkila dorretako zilarrezko oilarrek dirdiratsen zuten mirail handi batsuek bezala. Munduaren lau basterretarik ez zen hedoi bat agertzen. Urte hartan ez zen oraino zeruko urdina hain garbi agertu, nola egun hartan. Ongi etorria zen egun eder hura, zeren Euskal Herria, laborantsa handietako laborarien herria, lan handietako sasoin betean ziren. Lau orenak heinean jeiki nintzen goiz hartan, eta ordukotz argi turrintean epaileak,

heinean jeiki nintsen gois hartan ; Eta ordukots argi tirrintean epaileak, irauldariak, eta jorrariak juanak siren, bakotchak berek behar situsten tresnekin ; Bakotcha bere aldé soin bere lanetarat ; Leihorretako belharrak eginik siren ; bainan errapiretakoak usaia den besala, bethi askenik egiteko ; Orainon gibela siren eta gehienak pikhatsekoak siren. Argia doidoia urratsen hasia sen ; Eta ikusten siren jadanik epailien ondotik naiak herroka herroka lodi eta usu ; iguskiak ihintsa iretsi orduko basen saflada ederrik lurreraturik Hala nola ikusten siren ere irauldariaren hildoak sailka itsuliak ; Eta Jorrariak higitu lurra khetan jarria iguskiaren erraieri eskaintzen bere aspian hostuak atchikirikako aurkintsak bero setson ) Herrian oro sangoen gainean siren goisik. Belharrak situsten etchetan emasteak ernatsen siren barneko lanen despegitserat ; Seren ihintsa juan orduko behar suten aurkitu sorhoetan, Nun belhar pikatuak igurikitsen baitsituen ; Eta halaber senharrek, aitek edo semek sorhoan sirenek ber demboran igurikitsen suten beren gosaria ? Alde orotan arrasteluak har menean esarriak siren Athé aintsinetan. Nahis épailé gusiak etsiren bistan ; Segá chorrosteko khirri kharrak entsuten siren choko gordeenatarik ; Eta etche batetik bertsera athetik erraiten ginuen elgarri egun on ?

**4.** Oiloen erdian, oilarrek entsun arasten suten bere bots charamela ; kukuruku handitan hegales safratus ; Eta astaparka ungarri meten gainean bilhatus chichari edo har, gomitatzen situsten beren inguruetaoak parthé hartserat hekien hatchemantsarat ?

**5.** Errapé pisuko behiak jailgitsen siren heietarik alapidetarat eremanak isaiteko, Burua chuchentsen suten, eta altchatsen noisean behinka gois esti haren ohoratseko ; Istan bat airé freskoa tiratu ondoan ; Alhari lotsen siren muturrak lusatus baska berde gisen batean ; soinak ihintsaren medios emaiten baitsioten lehiarik handiena asetseko ? Arteka behatsen suten begi handi goso batsues belhorrochi, eta ergi eder batsuer, Soinak saltoka eta putinka ari baitsiren plaseraren plaseres.

**6.** Gois harrek hitsemaiten suen besala, eguna isantsen ederra, eta beroa ; Eta es dut erran beharrik, Nik ere nere phartetik ongi baliatu nuela ene lan bidetan ; Beras hits bates egun harek hedatu suen Boskariorik handiena jenden

iraulariak eta jorrariak joanak ziren bakotxak beren behar zituzten tresnekin, bakotxa bere alde, zoin bere lanetarat. Leihorretako belarrak eginik ziren, bainan errapiretakoak, usaia den bezala, beti azkenik egiteko, oraino gibela ziren eta gehienak pikatzekoak ziren. Argia doi-doia urratzen hasia zen eta ikusten ziren jadanik, epaileen ondotik, naiak, herroka herroka, lodi eta usu. Eguzkiak ihintza iretsi orduko bazen zaflada ederrik lurreraturik. Hala nola ikusten ziren ere iraularien ildoak, sailka itzuliak, eta jorrariak higitu lurra ketan jarria iguzkiaren erraieri eskaintzen bere aspian hostoak atxikirikako aurkintza, bero zetson. Herrian oro zangoen gainean ziren goizik. Belarrak zituzten etxetan emazteak ernatsen ziren barneko lanen despeditzerat, zeren ihintza joan orduko behar zuten aurkitu soroetan, non belar pikatuak igurikitzen baitzituen. Eta halaber senarrek, aitek edo semek soroan zirenek, ber demboran igurikitzen zuten beren gosaria. Alde orotan arrasteluak har menean ezarriak ziren ate aitzinetan. Nahiz epaile guztiak ez ziren bistan, sega xorrosteo kirrikarrak entzuten ziren xoko gordeenatarik eta etxe batetik bertsera atetik erraiten genuen elkarri egun on.

**4.** Oiloen erdian oilarrek entzunarazten zuten bere botz xaramela, kukuruku handitan hegalez zafratus eta aztaparka ongarri meten gainean bilatuz xixari edo har, gomitatzen zituzten beren inguruetaoak parte hartzerat heien atzemantzarat.

**5.** Errape pisuko behiak jalgitzen ziren heietarik alapidetarat eremanak izateko. Burua xuxentzen zuten eta altxatzen noizean behinka goiz ezti haren ohoratseko. Istant bat aire freskoa tiratu ondoan, alhari lotzen ziren muturrak luzatuz bazka berde gizen batean, zoinak ihintzaren medioz emaiten baitzioten lehiarik handiena asetseko. Arteka behatzen zuten begi handi goxo batzuez belorroxi eta ergi eder batzuer, zoinak saltoka eta putinka ari baitziren plazeraren plazerez.

**6.** Goiz harek hitzemaiten zuen bezala, eguna izan zen ederra eta beroa, eta ez dut erran beharrik, nik ere nere partetik ongi baliatu nuela ene lanbidetan. Beraz hitz batez, egun harek hedatu zuen bozkariorik handiena jenden artean

artean, Eta arima salbu eta animalen artean; Bainan es hargatik arrats artean ?

**7.** Iguskia beherasko jautsia sen, bainan basen orainon egun puska bat, Nahis arratsaldé apala sen ; ilhun artean ? Anartean, nahigabé bat ethorri sen chimistaren pare. Barraiatsen sela suntsitserainokoan Jenden arteko, sorion, boskario, plazer, atsegin, dohatsu eta loriak oro ? Ordu beretik hoikién ordé sarthu sen, bortha orotatik, sorigaitsa, atsekabea, desplasera, dohakabea, lastima harrigarrisko, eta isigarrisko, nahi gabé hura ;

**8.** Urrikalgarri sen ikhustea kolpé horrek ser hersturan eman suen ama familiakoen arima ; Eta hekienarekin batean haur arrasoinerat helduak sirenena ; Bihots urragarri sen aditsea hoikien pleinuak, eta hunkigarri ere bai hoikien bihotsa hola chehakatua senditsea ?

**9.** Gisonak bethi besala gogorchago ; hek etsuten hainbertsé erakusterat emaiten beren cauriaren gainean sagokaten plegua ; Ba bainan barnetik sofritsen ; Eta begitartean begi chorta bat edo bertserekin burua aphil aithortsan fama harrek etsituela hainits sustatsen ?

**10.** Serk egin suen bada betbetan, aldamen hori ; burua itsul artean erraiteko gisan ; Huna sertsen ? Arratsaldeko bortsak iria sen ? Deskantsuak eta bakeak, lekhu egin suten sorigaitsari, eta gerlari. Gerla ? Duda mudan sagon galerna belts hori. isen goibel, eta ilhun hori sapartatu sen ortsi karraskaren pare herri aldé orotan ; Aldi huntan egiasko sinarekin ? Eta ordu beretik aipatu ditudan arima gaicho horiek oro, Estokan jarri siren

**11.** Ordu hartan kampan nintzen aberientsat baska berde aphur baten pikatsen hari ; Arratseko eta biharamuneko Arrantchoentsat ; Herriko eskilak alcharasi sauntan burua ; Eta hainbertsenarekin Bausarrikoak, Ustaritsekoak, Semperekoak eta Arbonakoak ere hasi siren bimbi bambaka errepikas jotsen ? Ene baitan etsen gehiago dudarik, oren gaistoa ethorria sen ? Ene andreak ganberako leihotik deithu ninduen ene isenes ; Eta galde egin ser isan othé sitasken eskila horiek ; ihardetsi nioen es nakiela ; Bainan etsen ene sendimenduek phentsatsen sutena, hola ihardetsia isana gatik ; Gaichoak barnean selakots etsuen aditsen herrikoak baisik ; Biskitartean Bausarrikoak eta arbonakoak aise beharrietarat jin behar sitsaiskon bisenbis situelakots ; Bainan asken

eta arima salbu eta, alimalen artean, bainan ez hargatik arrats artean.

**7.** Eguzkia beheraxko jautsia zen, bainan bazen oraino egun puxka bat nahiz arratsalde apala zen ilun artean. Anartean, nahigabe bat etorri zen tximistaren pare, barreiatzen zela suntsitserainokoan jende arteko zorion, bozkario, plazer, atsegin, dohatsu eta loriak oro. Ordu beretik, horien orde sartu zen borta orotatik zorigaitza, atsekabea, desplasera, dohakabea, lastima harrigarrizko eta izigarrizko nahi gabe hura.

**8.** Urrikalgarri zen ikustea kolpe horrek zer hersturatan eman zuen ama familiakoen arima ; eta haienarekin batean haur arrazoinerat helduak zirenena. Bihots urragarri zen aditsea horien pleinuak, eta hunkigarri ere bai hoien bihotza hola xehakatua senditsea.

**9.** Gizonak beti bezala gogorxago ; haiek ez zuten hainbeste erakusterat ematen beren zauriaren gainean zegokaten plegua. Ba bainan barnetik sufritzen. Eta begitartean begi xorta bat edo besterekin burua apal aitortzen fama harek ez zituela anitz sustatsen.

**10.** Zerk egin zuen bada betbetan, aldamen hori ; burua itzul artean errateko gisan. Hona zer zen ; arratsaldeko bortsak iria zen ; deskantsuak eta bakeak, leku egin zuten zorigaitzari, eta gerlari. Gerla ! Duda mudan zegoen galerna beltz hori. Izen goibel eta ilun hori zapartatu zen ortzi karraskaren pare herri alde orotan ; aldi honetan egiasko zenarekin. Eta ordu beretik aipatu ditudan arima gaixo horiek oro, estokan jarri ziren.

**11.** Ordu hartan kampan nintzen abereentzat bazka berde apur baten pikatzen ari arratseko eta biharamuneko arrantxoentzat. Herriko ezkilak altxarazi zidan burua ; eta hainbestenarekin Basusarrikoak, Uztaritzekoak, Semperekoak eta Arbonakoak ere hasi ziren binbibanbaka errepikaz jotzen. Ene baitan ez zen gehiago dudarik, oren gaiztoa etorria zen. Ene andreak ganberako leihotik deitu ninduen ene izenez, eta galde egin zer izan ote zitezkeen ezkila horiek ; ihardetsi nion ez nekiela. Bainan ez zen ene sendimenduek pentsatzen zutena, hola ihardetsia izanagatik. Gaixoak barnean zelako ez zuen aditzen herrikoak baizik. Bizkitartean Basusarrikoak eta Arbonakoak aise belarrietarat jin behar zitzaizkion bisean bis zituelako. Bainan azken hauk ahultxeagoak

hauk ahulchagoak sirelakots duda gabé ; eta nola herrikoak ingurunako haskarrenak baitiré pentsatsen dut haukiek tapatsen situstela, bi tipi horiek ; Dena den etsen herrikoer baizik ohartu ; Nahis Ustaritsekoea eta Semperekoa garbiki esagun siren ; Hauk biak es entsunik ere es nais harritsen bat abantchu eta bertsea arras gibelean situen ; Eta serbait iduritua isana gatik hego alde hortarik, herrikoaren oihartzunarentsat hartu situen ; Seren erran sauntan, duda gabé sombeit haur hil sela ?

**12.** Egun hundarra hola hola iragantsen ; Nik esnuen ene bihotseko chimikoa salhatsen es eta ere eiakusterat emaiten ? Ongi begiratu nintsen gerlasko aiphurik, ene solachetan lerratserat ustetik ? Usaian besala akhabatu gintuen eguneko lanak ; Eta deskantsuan harturik gure arratseko otrunsa, juan ginen gure loaren hartsera elgarri gau on erranik ?

**13.** Nahis akhitua nintsen gau hartan ; Lanarekin aldé batetik, eta iguskiaren berothasunarekin bersetik ; Es nuen begirik hesten ahal isan gois alderat baisik ; Nekhé saut erraitea ser estremitatean kausitsen nintsen ene etsangian ; itsul aldeat, itsul bertserat es nuen nihun sosegurik ; Gauherdi ingurua sen, serbeit iduritu sitsautanean kampotik heldu sela ? Harramants bat burrunba batekin ; Sakhur sainga eta erautsiak nahasten sirela entsuten nintuen harrabots horri ; Bi saltos jeiki nintzen leihora, eta beharria hedatu alde orotarar ; Bainan esnuen gehiago deus harramantsik aditsen : Demborak galdua suen ordukots bere edertasuna ifrantsios itsulia sen ; Mendealetik jailgitsen siren hedoi kargatu batsu, haisé hots batekin ; Eta etsen otsuaren ahuan bainon gehiago deus ageri ; Hau ere duda gabé dolu minetan jarria ; Nahi suen partalier isan populuaren bihots belches estalietan ;

**14.** Nahis arin jeiki nintzen, Eta sango puntan gainean erabili leihorat artean ; Aski isantsen ene andrearen iratzarrarazteko. Harriturik jarri zen eni so ; Eta galdegin zidan eia ser ari nintzen, eta ser nuen tenoré galdu hartan chutiturik kamporat beha egoiteko ; Serbeit iduriturik jeikia nintsela ihardetsi nioen ; Eta berak ere bertsé hainbertsé egin suen ) Nere ganat seneko burrunba egundainokotan hasi sen : Gure aintsinetik ; Alots subiko aldetik salako petarra deithua den petharraren solatik ; Kaskorat heldu senean esagutu nuen es nuela amets egin ;

zirelako duda gabe, eta nola herrikoak inguruneko azkarrenak baitira pentsatsen dut hauek tapatsen zituztela bi tipi horiek. Dena den, ez zen herrikoer baizik ohartu, nahiz Uztaritzekoea eta Semperekoa garbiki ezagun ziren, hauek biak ez entzunik ere, ez naiz harritzen, bat abantzu eta bestea arras gibelean zituen eta zerbait iduritu izanagatik hego alde hortarik, herrikoaren oihartzunarentzat hartu zituen. Zeren erran zidan, duda gabe zenbait haur hil zela.

**12.** Egun hondarra hola hola iragan zen, nik ez nuen ene bihotzeko ximikoa salatzen ez eta ere erakusterat ematen. Ongi begiratu nintzen gerlako aipurik ene solasetan lerratzerat uztekin. Usaian bezala akabatu genituen eguneko lanak, eta deskantsuan harturik gure arratseko otruntza, joan ginen gure loaren hartzera elgarri gau on erranik.

**13.** Nahiz akitua nintzen gau hartan, lanarekin alde batetik eta eguzkiaren berotasunarekin bestetik, ez nuen begirik hesten ahal izan goiz alderat baizik. Neke zait erratea zer estremitatean kausitzen nintzen ene etzangian ; itzul aldeat, itzul besterat ez nuen nihon sosegurik. Gauherdi ingurua zen, zerbait iduritu zitzaidanean kampotik heldu zela. Harramantz bat burrunba batekin. Zakur sainga eta erautxiak nahasten zirela entzuten nituen arrabots horri. Bi saltos jeiki nintzen leihora, eta belarria hedatu alde orotarar. Bainan ez nuen gehiago deus harramantzik aditzen. Demborak galdua zuen orduko bere edertasuna ifrentzuz itzulia sen. Mendebaletik ziren hedoi kargatu batzuk, haize hotz batekin, eta ez zen otsoaren ahoan baino gehiago deus ageri. Hau ere duda gabe dolu minetan jarria, nahi zuen partalier izan populuaren bihotz beltzez estalietan.

**14.** Nahiz arin jeiki nintzen, eta zango puntan gainean erabili leihorat artean, aski izan zen ene andrearen iratzarrarazteko. Harriturik jarri zen eni so, eta galdegin zidan eia zer ari nintzen, eta zer nuen tenore galdu hartan xutiturik kamporat beha egoteko. Zerbait iduriturik jeikia nintzela ihardetsi nion. Eta berak ere beste hainbeste egin zuen. Nereganat zeneko burrunba egundainokotan hasi zen. Gure aitzinetik, Alotz zubiko aldetik salako petarra deitua den petarraren zolatik, kaskorat heldu zenean ezagutu nuen ez nuela amets egin. Errealki



Erreaki atabal eta klerun soinua sela ; Andreak baitespada jakin nahi suen ser seinalatsen suten mugimendu horiek destenore hartan ; Nik banakiela dudarik gabe serbait) Galdes hertsatsen nintuen, eta begis othoisten argi nesan gausa horren gainean ;

**15.** Es nakien nola hartuko suen gausa bainan egia gusien erraiteko orena ethorria sen ; es nesaken gehiago gordé ene bertsé segeretu gusiak esagutsen situen lagun maiteari galerna batek erresuma inharrosten suela ; Es nintzen errecki menturatsen hitsaren largatserat ; Bainan askenean atrebitu nintzen ene ahal oros sustaturik askar isan sadila, erraiteko nuenen aditseko ? Sernahiren aditserat prest sela ihardetsi saudan ; Eta nik ere lagnoki esplikatu nioen ; Herriko hausaphesa sela beribiles ibilki ? Gerlako urhatserat eroriak ginela jakin arasten ; Nahi suena ardietsi suen ; Eta hitseman besala askar egon sen deklaratsione horien ondoan ) Seren ondorioak etsion egin nik usté nuen besen ~~bat~~ impresioné gaistoa) iduri suen deliberatua sela penen jasaitera, edo es dakit es othé suen orainon osoki sinhesten ; Istan bat egon ginen ichiltasunean begiak aphur bat nahasiak, eta sorroski borthits hoitarik esaguntsen guk ginuen barnetikako erakidura ?

Segida) **16.** Es ginesaken urhats bat egin hain ginen lastuak, Lekuaren gainean josiak iduri ginuen oinetarik taulatuari itsatuak ; ichiltasun hartan es ginuen entsuten bi bihotzen jumpaka baisik jotsen ; Mihia moteldua iduri hura ere josia, eta espainak esin idék ; Bainan gure behakoak aski siren elgar entelegatseko, eta guk ginuen amodiaren hobeki pisteko : Gehiagoko solasik gabé mutuen gisa elgar besarkatu ginen, Nigarrari libertaté osoa utsirik, eta oherat arreitsuli

**17.** Biharamunean igandea, etsen nahi bainon lasterrago ethorri ; Argi urratsean jeiki nintzen, lo guti eta amets gaisto frango eginik : Burua kuia handi bat besain pisu ; Begiak erresumin batekin, oilar kukurusta besain gorri ; gorphutsa higatua, unhatua, lehertua, iduri hautsia Higitu behar nuen, eta airé hartu ene onetan ; Es nuen demborarik galdu, gausa behar hoikien jastatserat juaiteko ; Soinek haskarki apatsegatu baitsitusten ene sain estiratuak, eta hertu buruko hanturak ; Andrea ere erremedio beres behartu sen ; eta nik besala egin.

atabal eta kleron soinua zela. Andreak baitezpada jakin nahi zuen zer seinalatsen zuten mugimendu horiek destenore hartan. Nik banakiela dudarik gabe zerbait, galdez hertsatsen nintuen, eta begiz otoizten argi nezan gauza horren gainean.

**15.** Ez nekien nola hartuko zuen gauza bainan egia guztien erraiteko orena etorria zen. Ez nezakeen gehiago gorde ene beste segeretu guztiak ezagutzen zituen lagun maiteari galerna batek erresuma inarrosten zuela. Ez nintzen errazki menturatsen hitzaren largatzerat. Bainan azkenean atrebitu nintzen ene ahal oroz sustaturik azkar izan zedila errateko nuenen aditzeko. Zernahiren aditserat prest zela ihardetsi zidan. Eta nik ere lainoki esplikatu nion herriko auzapeza zela beribilez ibilki, gerlako urratsean eroriak ginela jakinarazten. Nahi zuena ardietsi zuen, eta hitzeman bezala azkar egon zen deklarazione horien ondoan. Zeren ondorioak ez zion egin nik uste nuen bezainbat inpresione gaiztoa. Iduri zuen deliberatua zela penen jasatera, edo ez dakit ez ote zuen oraino osoki sinesten. Istant bat egon ginen isiltasunean, begiak apur bat nahasiak eta zorrozki bortitz horietarik ezagun zen guk genuen barnetikako erakidura.

Segida) **16.** Ez genezake urrats bat egin hain ginen lastuak, lekuaren gainean josiak iduri genuen oinetarik taulatuari itzatuak, isiltasun hartan ez genuen entzuten bi bihotzen jumpaka baizik jotzen. Mihia moteldua iduri hura ere josia, eta ezpainak ezin idek. Bainan gure behakoak aski ziren elgar entelegatzeko, eta guk genuen amodioaren hobeki pizteko. Gehiagoko solasik gabe mutuen gisa elgar besarkatu ginen, nigarrari libertate osoa utzirik, eta oherat arra itzuli.

**17.** Biharamunean igandea, ez zen nahi baino lasterrago etorri. Argi urratsean jeiki nintzen, lo guti eta amets gaizto frango eginik. Burua kuia handi bat bezain pisu, begiak erresumin batekin, oilar-kukurusta bezain gorri, gorputza higatua, unatua, lehertua, iduri hautsia. Higitu behar nuen, eta aire hartu ene onetan. Ez nuen demborarik galdu, gauza behar horien jastatzerat joateko, zeinek azkarki apazegatu baitzituzten ene zain estiratuak, eta hertu buruko hanturak. Andrea ere erremedio berez behartu zen, eta nik bezala egin.

**18.** Asteharté artinoko dembora banuen etchetik abiatseko ; Eta gure artean erran ginuen ordu arthé bederen behar gintuela denak ahaintsi : Etsuela balio behar bainon lehenago nigar suspiretan jartsea ; Batsitakela aski dembora gero éré ) Nola erran eta hala egin ginuen ; Burhatsoak ere jakintsun esarri gintuen, ahalik eta lasterrena ; Haurrer mintsatsea dembora galtsea isanen tsen, adin hartan eta beren arrasoin eskasean

**19.** Burhatsoak juan siren goiseko mesarat, eta handik ethorri bihotsak estalia, erranes urrikalgarri sela ikhustea jendeen itchura ; Gu senhar emasteak juan ginen mesa nausirat

Usaian besala mesa khantatua hasi sen : bainan nehork etsuen bihotsa bere lekhuon khantus artseko ophil batek estofatsen situen ; Jaun erretora bera nigarres, aldarean itsuli sen, Eta erran mesa ichila emanen suela, ikhusten suelakots jenden estatua haskarki kolpatua ; Jendea kharsuki (ari) sen othoitsean, jinkoari bihotsak alchatus galdé egiteko ; Aski ona isan sadin ; sustasione eta behar suten indarren emateko jasain behar suten sorigaits eta sofrikariuen jasaiteko ; Eta dembora (berean) galdatsen ere suten : Sendimentu beretan bisi siren hekien isenean ; lusa sesoten bisia, eta salba setsan etsaien artetik ; Baldin eta gerla ondoan isan setsaten eskual herrirat itsultseko soriona ; Bihots gusiek isan setsaten bildutasunean elgarren aldean jotseko atsegina ; Eta hatcheman sesaten heltsen sirenean argitsen suen egun oros boskario berri bat.

**20.** Hameka orenetan jailgi ginen elisatik ; Apeiku aspian jaun erretorak juan behar ginen gisoneri egin saunkun eksortha bat hunkigarria, eta despegitu erranes jinkoaren borondatea egina isan sadila ; Eta dembora berean othoistu harmetarakoan ginuatsila elisako ordren betheserat, asken hits onen aditserat, eta haren etcherat gomitatu goisekoaren hartserat

Eguardiko heldu ginen etcherat gure karroarekin : Eta Baskaldu aski alageraki orainon egun hartan, Aphur bat gochatu ginen ere herriko hausaphesak solasetan egin agintsen gainean ; Harren ideien arabera es ginela surako segurtatu gintuen ; Espainiako mugen, eta itsas basterren saintseko hautatuak isanen ginela gisa gusien arabera sion ; Norbeit behar selakots eta etsitelakots isan gu bainon susenagorik ;

**18.** Astearte artinoko dembora banuen etxetik abiatzeko, eta gure artean erran genuen ordu arte, bederen, behar genituela denak ahantzi, ez zuela balio behar baino lehenago nigar suspiretan jartzea; batzitateela aski dembora gero ere. Nola erran, eta hala egin genuen. Burasoak ere jakintsun ezarri genituen ahalik eta lasterrena. Hurrei mintzatzea dembora galtzea izanen zen, adin hartan eta beren arrasoin eskasean.

**19.** Burasoak joan ziren goizeko mezarat, eta handik etorri bihotzak estalia, erranez urrikalgarri zela ikustea jendeen itxura. Gu senar-emazteak joan ginen meza nagusirat. Usaian bezala meza kantatua hasi zen, bainan nehork ez zuen bihotza bere lekuan kantuz aritzeko, opil batek estofatzen zituen. Jaun erretora bera nigarrez, aldarean itzuli zen, eta erran meza isila emanen zuela, ikusten zuelakotz jendeen estatua azkarki kolpatua. Jendea kartsuki ari zen otoitzean, Jainkoari bihotzak altxatuz galde egiteko, aski ona izan zedin sustasione eta behar zuten indarren emateko jasan behar zuten zorigaitz eta sofrikarioen jasateko. Eta dembora berean galdatsen ere zuten, sendimentu beretan bizi ziren haien izenean, luza zekien bisia, eta salba zetzan etsaien artetik. Baldin eta gerla ondoan izan zetzaten Euskal Herrirat itzultzeko zoriona, bihotz guztiek izan zetzaten bildutasunean elkarren aldean jotzeko atsegina, eta atzaman zezaten heltzen zirenean argitzen zuen egun oroz bozkario berri bat.

**20.** Hamaika orenetan jalgi ginen elizatik. Apeiku azpian, jaun erretorak, joan behar ginen, gisoneri egin zigun etzorta bat hunkigarria, eta despeditu erranez Jainkoaren borondatea egina izan zedila ; eta dembora berean otoitzu armetarakoan gindoatzila elizako ordren betetzerat, azken hitz onen aditserat, eta haren etxerat gomitatu goizekoaren hartzerat.

Eguardiko heldu ginen etxerat gure karroarekin. Eta bazkaldu aski alegeraki oraino egun hartan. Apur bat gozatu ginen ere herriko auzapezak solasetan egin agintzen gainean. Haren ideien arabera, ez ginela surako, segurtatu gintuen. Espainiako mugen eta itsas bazterren zaintzeko hautatuak izanen ginela gisa guztien arabera, zion. Norbait behar zelako eta ez zatekeelako izan gu baino zuzenagorik.



oren bat pausa hartu eta arratsalde hartan juan nintzen ene adiuene egitera ahaide, adiskide eta hauso hurbilenetarat : Nun hoikien artean egin bainuen otruntza asko bortchaka gosearen kontra ; es nahis nihor kontrariatu, itsulia frango eginik heldu nintzen etcherat hamarrak aldera ; eta es nuelakots goserik, afaldu gabé juan nintzen ohera ?

**21.** Biharamunean astelehena goisian goisik juan nintzen Baionarat, nun iragan bainuen egunik gehiena ; Han banintuen bi koinat arras atchikiak eni eta familiari ; Bat ostaler eta bertsea elektrikan emplegatua, Lehen horren Baitharat sarthu nintsenean ; Hunen andrea eni ohartu seneko, jin sitsautan burus nigarres urthurik, erraitera jauna juana suela besperan, eta etsakiela ser pentsa, es eta ere ser asma, Hits konsolagarri batsuekin eman nuen berehala arrasoin bidean ; Eta esplikatu nola senharra ethorriko sitsaion behar bada egun hartan berean gibelerat ; Kasik segur nintzen aintsinatsen nuenas ; Banakien ethorriko sela seren jada adines aphur bat aintsinatua sen soldado lehen egunetik juaiteko ; Bainan huna sertsen harren misionea : Kabaleria eta artilleria tarben aurkhitsen sirelakots ; Kabalerian serbitsua eginikako gisonek behar situsten samariak ereman hiri hartarat ; Eta hau sen harren kausionea ? Ene erranas segur nintzen besala ethorri sen lehen gauean berean ; Etchean egoiteko ordre berri bat arthean ; Andrea ikhusi nuen ondoko lau borts egunetan, hirian egon nintzen egun orotan ; Bereak ahaintsirik ene penes arras urrikaldua sen, eta naski orainon gehiago ene andrienes ; ahispa gisan es baita harritseko.

**22.** Asken hau aldiz galdearen begira sagon ; Marnel gisa itsas Borthu batetarat edo bertsera abiatseko ; sointan ere untsiak igurikitsen baitsuen eta hartara heltseko ; Ene itsuliak eginik, eta karguak harturik : Ahaidieri eta adichidieri ikhus arthe eta bihar arthé erranik Etcherat itsuli nintzen carroa bihis khargaturik, eta heldu arrats aldera ; egunaren osatseko usaiako lanen egitera ; Bertsé Deus nahi gabek etsuen markatu egun hura biharamun arthé

Egoitsaren ustea ; eta etchetik Abiatsea

**23.** Biharamuna Astehartea ? Soriona sobera osoa sen iraupenaren isaitseko ? Orain

Oren bat pausa hartu eta arratsalde hartan joan nintzen ene 'adiuen' egitera ahaide, adiskide eta auzo hurbilenetarat, non horien artean egin bainuen otruntza asko bortxaka gosearen kontra, ez nahiz kontrariatu. Itzulia frango eginik heldu nintzen etxerat hamarrak aldera ; eta ez nuelako goserik, afaldu gabe joan nintzen ohera.

**21.** Biharamunean, astelehena, goizean goizik joan nintzen Baionarat, non iragan bainuen egunik gehiena. Han banituen bi koinata arras atxikiak eni eta familiari. Bat ostalari eta bestea elektrikan enplegatua. Lehen horren baitarat sartu nintzenean, honen andrea eni ohartu zeneko, jin zitzaidan buruz nigarrez urturik, erraitera jauna joana zuela bezperan, eta ez zekiela zer pentsa, ez eta ere zer asma. Hitz konsolagarri batzuekin eman nuen berehala arrasoin bidean. Eta esplikatu nola senarra etorriko zitzaion behar bada egun hartan berean gibelerat. Kasik segur nintzen aitzinatzen nuenaz. Banekien etorriko zela zeren jada adinez apur bat aitzinatua zen soldado lehen egunetik joateko. Bainan hona zer zen haren misionea, kabaleria eta artilleria Tarben aurkitzen zirelako, kabalerian zerbitzua eginikako gisonek behar zituzten zamariak eraman hiri hartarat. Eta hau zen haren kausionea. Ene erranaz segur nintzen bezala, etorri zen lehen gauean berean etxean egoteko ordre berri bat artean. Andrea ikusi nuen ondoko lau bortz egunetan hirian egon nintzen egun orotan. Bereak ahaintsirik ene penes arras urrikaldua ze eta naski, oraino gehiago ene andreenez, ahizpa gisan ez baita harritseko.

**22.** Azken hau aldiz galdearen begira zegoen. Marnel gisa itsas portu batetarat edo bestera abiatzeko, zeinetan ere untsiak igurikitzen baitzuen eta hartara heltzeko. Ene itsuliak eginik, eta karguak harturik, ahaidieri eta adiskidieri ikus arte eta bihar arte erranik, etxerat itzuli nintzen karroa bihis kargaturik, eta heldu arrats aldera, egunaren osatzeko usaiako lanen egitera. Beste deus nahigabek ez zuen markatu egun hura biharamun arte.

Egoitzaren uztea, eta etxetik abiatzea.

**23.** Biharamuna, asteartea. Zoriona sobera osoa zen iraupenaren izateko. Orain urrikalmenu

Urrikalmendu beharretan garé gutis gehienak : Huna beras abiatseko tenorea nun den jina : Nahis es naisen baxharra urrikaltseko da kasu huntan dena ; Ene burhatsoen, Andrearen, eta haurren usteak emaiten daut bihotsean achola ; Seren hoik baititut munduan maitenak ? Huna andrearekin oren dohakabé hartan bitartean eginikako solasak : Ene Lagun prosimo maitea ; Ene begietan eta konfidentsian Emaste bat sare merechimendu oros gainekoa ; Esagutsen ditut sure obra onak, berthuté leialak. Eta hunkitua nais ene bihotsaren solaraino suré jenerostasun handias eta errespetagarrias ; Suk egun huntara artean jasain ditutsunak jasain ditutsu suski, eta pasientsia handirekin ; Lagnoki eta prestuki ; Bainan zerdire orai arthean iragan ditugun egunak, hilabeteak eta urtheak hemendik aintsinekoek mehachatsen gitustenen aldean ; Es da segurki komparasionerik egiteko ; Ene bisia oren huntara arthean isan da hobekienetarik konplikatua ; Eta berhechteko memento hunek emaiten dautan nahigabeas bersalde es dut egiasko changrinik esagutu ; Ene ispiritua libro egon da bethi sure aldean ; Deskantsuan iragan ditut surekin eman egunak, sure kasu onen eta artha handien medios ; Mila esker bihurtzen dauskitsut ; Eta adoratsen saitut seren gusis ona isan saren enetsat eta partikularski haurrentsat ) Sinheste badut etsarela hemendik aintsina ere flakatuko, eta haurrentsat isanen dusula bethi ber amodio : hoitan usten dudalakots sure konsolamendua eta asken soriona )

**24.** Beras ene André Maitea ? Eneak ahansten ditut suries orhoitseko ikusten dudan besala suri ere probidentsiak begiratsen sautsun sorthé dorpherik, eta nahi gabé hilkorrik ; Oraiko orenean saré emasté bat sofritsen, eta nigar egiten dusuna ; Soinak baititutsu arima, eta bihotsa chehatuak ; Urrikalmendu ororen digné sarena ) Bainan gaichoa jakin satsu aski maité saitudala, su besain dohakabé isaiteko sure sorigaitses, eta sofritseko (sure) sofrikarioes, Berrits ere erraiten dautsut eta juramendu egiten, maité saitudala lehen egunean besala ; Badire gausa batsu ahansten es direnak, eta enetsat egin ditutsunak ; Badakisu gargoitik ser balio duen ene hitsak ; sakratua sauskidala, eta eman nesakela lehenago ene bisia suretsat (ikhus)taterik irakhusterat es nesaken eman baino lehen ; Jakin sasu beras ene maitea sendimendu bat badudala, eta es ditudala

beharretan gara gutiz gehienak. Hona beraz abiatzeko tenorea non den jina. Nahiz ez naizen bakarra, urrikaltzeko da kasu honetan dena: ene burasoen, andrearen eta haurren uzteak ematen dit bihotzean axola. Zeren hoiek baititut munduan maiteenak. Hona, andrearekin oren dohakabe hartan bitartean eginikako solasak: Ene lagun 'protsimo' maitea, ene begietan eta konfidenzian emaste bat zara merezimendu oroz gainekoa; ezagutzen ditut zure obra onak, bertute leialak eta hunkitua naiz ene bihotzaren zolaraino zure jenerostasun handiaz eta errespetagarriaz. Zuk egun honetara artean jasan dituzunak jasan dituzu suzuki, eta pazientzia handirekin, lainoki eta prestuki, bainan zer dira orain artean iragan ditugun egunak, hilabeteak eta urteak hemendik aitzinekoek mehatxatzen gaituztenen aldean. Ez da segurki konparasionerik egiteko. Ene bizia oren honetara artean izan da hobekienetarik konplikatua, eta bereizteko memento honek ematen didan nahigabeaz bestalde ez dut egiasko xangrinik ezagutu. Ene izpiritua libre egon da beti zure aldean. Deskantsuan iragan ditut zurekin eman egunak, zure kasu onen eta arta handien medios. Mila esker bihurtzen dizkizut eta adoratsen zaitut zeren guztiz ona izan zaren enetsat eta partikularzki haurrentzat. Sineste badut ez zarela hemendik aitzina ere flakatuko, eta haurrentzat izanen duzula beti ber amodio. Horietan uzten dudalako zure kontsolamendua eta azken zoriona.

**24.** Beraz ene andre maitea, eneak ahansten ditut zureez oroitzeko ikusten dudan bezala zuri ere probidentsiak begiratzen zaizun zorte dorpherik, eta nahigabe hilkorrik. Oraiko orenean zara emaste bat sufritzen eta nigar egiten duzuna, zeinek baitituzu arima eta bihotza xehatuak. Urrikalmendu ororen duina zarena, bainan gaixoa, jakin ezazu aski maite zaitudala zu bezain dohakabe izateko zure zorigaitzez, eta sufritzeko zure sufrikarioez. Berritz ere erraiten dizut eta juramendu egiten, maite zaitudala lehen egunean bezala. Badira gauza batzuk ahansten ez direnak eta enetsat egin dituzunak. Badakizu gaur goitik, zer balio duen ene hitzak, sakratua zaizkidala, eta eman nezakeela lehenago ene bizia zuretzat, ikustaterik erakusterat ez nezakeen eman baino lehen. Jakin ezazu beraz, ene maitea, sendimendu bat badudala eta ez ditudala sekulan ahantziko zure

sekulan ahantsiko sure ongi eginak, eta berthuté ederrak, ene bisiarekin baidak ) Bertsaldé badakit ere sombat maité nausun ; Eta es desaket erran sombat dohatsu isan naisen sure amodio estiaren aldean ; Elgarrekin esagutu dugu egun dohatsurik ; Sorthuak isan gare sorionarentzat ; gure haurtasuna isan da esinago mainatua ; Gure burhatsoak ongia bera siren ; Eta guk es ginuen galdé egiten alegrantsia eraitea baidak gure inguruan ; Bainan orai bisiak es dauku gehiago irri egiten ; Denak jenatuak gerthatzen dire mementu huntan? Bainan hargatik denak ethortsan ahal diré ; Es dut phentsatsen dohatsuki isanen dela sorigaitz esin antolatuzkorik ; Egin desagun beras odol gaistorik ahalik eta gutiena denak iraganen dire bere demboran ; Hobé dugu hartsea gausak heldu diren besala ; gausak heldu dire seren jin beharrak diren ; Es du deus balio doloretan jartseak ; egintza hor da ikhusten dugun besala ; eta jendetan den botheretsuenak es lesaké alda ; orai dena behartsen ; es da egitera ustéa baidak ; Beras ene maitea ; egin sasu ni(k) besala ; Ser nahi isan da(din) sorigaitz edo sorion onhets sasu gogo ones ; erreboltarik gabé, sustasunekin eta pasientsiarekin Esin bertsea denas gainean ; Ethorriko nais egun bates hori segur da ; Bainan nois es desakesuket erran ; gois edo berant ; laburski edo lusaro noisbeit ikhusiko nausu ; Anartean behar dugu gure bisi mendeari buru egin ; prestuki, odol hotsekin eta chuchen ikhusten duen ispiritu batekin ; Orai beretik ikhusten ditut guk jasain behar ditugun penasko egunak ; eta lorik gabeko gauak ; Bainan ni berrits suetaratsean ongi pagatuak isanen gare : eta Jinkoa egun bates akitatuko da gure alderako sorres ; Gerla hunek itsultsen ditu gure chantsa on gusiak, eta chehatsen gure bisi mendé gusia ; Baina badugu orainon gastetasuna dena fedes eta sustasunes bethea ; jinkoak benedikatuko gaitu ; eta eni salbatuko bisia : senditsen dudan besala : es dudalakots hartas dudatu sekulan ; Duda gabé ene maitea demborak gogor isanen dire istan bat ; Bainan beharko dugu hautsi iraganarekin, eta bisi berri bat hasi deliberoki ;

**25.** Es dausut gehiagokorik erraiten Maite hutsa ; Bakharrik othoisten dut ene patroin sendua ; soinak baitut ohorea isenaren khareiatseko : gure aingeru begiraleak ararteko sokhorri gaitzan gure oren nahasietan ; eta lanjeretan ; Eta Maria sure patroina bethe setsan berthutes,

ongi eginak eta bertute ederrak, ene biziarekin baidak. Bestalde badakit ere zenbat maite nautzun, eta ez dezaket erran zenbat dohatsu izan naizen zure amodio eztiaren aldean. Elgarrekin ezagutu dugu egun dohatsurik. Sortuak izan gara zorionarentzat. Gure haurtasuna izan da ezinago mainatua. Gure burasoak ongia bera ziren, eta guk ez genuen galde egiten alegrantzia ereitea baidak gure inguruan. Bainan orain biziak ez digu gehiago irri egiten. Denak jenatuak gertatzen dira mementu honetan, bainan hargatik denak etortzen ahal dira. Ez dut pentsatzen dohatsuki izanen dela zorigaitz ezin antolatuzkorik. Egin dezagun beraz odol gaiztorik ahalik eta gutiena, denak iraganen dira bere denboran. Hobe dugu hartzea gauzak heldu diren bezala, gauzak heldu dira zeren jin beharrak diren. Ez du deus balio doloretan jartseak, egintza hor da ikusten dugun bezala, eta jendetan den boteretsuenak ez lezake alda. Orain dena behartzen, ez da egitera uztea baidak. Beraz ene maitea, egin ezazu nik bezala, zer nahi izan dadin zorigaitz edo zorion, onets ezazu gogo onez, erreboltarik gabe, sustasunekin eta pazientziarekin, ezin bestea denaz gainean. Etorriko naiz egun batez, hori segur da, bainan noiz ez dezakezuket erran, goiz edo berant, laburzki edo luzaro, noizbait ikusiko nautzu. Anartean, behar dugu gure bizimendeari buru egin, prestuki, odol hotzarekin eta xuxen ikusten duen izpiritu batekin. Orain beretik ikusten ditut guk jasan behar ditugun penazko egunak, eta lorik gabeko gauak, bainan ni berriz zuetaratzean, ongi pagatuak izanen gara eta Jainkoa egun batez akitatuko da gure alderako zorrez. Gerla honek itzultzen ditu gure xantza on guztiak eta xehatzen gure bizimende guztia, bainan badugu oraino gatzetasuna dena fedez eta sustasunez betea ; Jainkoak benedikatuko gaitu eta eni salbatuko bizia, senditzen dudan bezala, ez dudalako hartaz dudatu sekulan. Duda gabe ene maitea, denborak gogor izanen dira istant bat, bainan beharko dugu hautsi iraganarekin eta bizi berri bat hasi deliberoki.

**25.** Ez dizut gehiagokorik erraiten, maite hutsa. Bakarrik otoizten dut ene patroin saindua, zeinek baitut ohorea izenaren karreiatzeko, gure aingeru begiraleak ararteko sokorri gaitzan gure oren nahasietan eta lanjeretan. Eta Maria zure patroina bete zetzan bertutez, eman dezazun behar duzun indarra egun gogor eta frogagarri

eman desasun behar dusun indarra egun gogor eta frogagarri horien iragaiteko ; Eta achik setsan sure urhats faltso gusietan, bethetsen saituelarik esin berhechisko pasientsia eta susdura bates ; Beras ene kreatura maiteak ororo mintso nitsautsué : Deit-desagun jinkoa bethi sosegurik gabé gure oren gaistoetan, eta orienta detsagun gure bihots eriak hari buruz

Batsuetan es du ihardesten manera ageri bates ; hori egia da ? Bainan es desagun beldurrik isan : beilatsen du ? Nois eta ere uste baitugu utsiak garela ; Hor da aldean ; ikhusten ditu gure uspeldurak ; Eskain detsogu beras denak bihotsones ; Halarikan ere haren hagonia isigarriaren petik isanen garé ?

**26.** Usten saitut beras lagun maitéa ; Haurrak eta burhasoak konsolagarri erraiten dausudalarik es adiorik eta ikhus arthe ; Solas hauki ihardetsi sautana ene andreak hau sen ) Eskerrak dauskitsut ene senhar maitea sure solas konsolagarries eta dembora berean alchagarries ; Es dut geroas eta daraiskon ondorioes achola handirik ; baldin eta heldu basauskit gibelera bisirik ; Bainan zure gehiago es ikusteko beldurak jausarasten daut ikhara ? Beldur nais ; Beldur nais hainits.)

**27.** Ah ! Gichagaichoa ; Haurkeriak horiek oro : Deskantcha saité ; Badakit es nautela ehoko ene baithan serbaitek erraiten daut, eta badut konfidentsia jinkoa baitan, eta haren esperantsan, Ene isaitean senditsen dudan kharrak erraiten daut garbiki ? Sombeit demboraren buruan hatchemanen saistustedala usten saitustedan besala ; Haurrak aphur bat handituak ; Bainan orhatu ditugun bi naturalea hek berak aurkituko ditudala, gero éré ? Ikhus arthé beras Maria Juana Maitea ; Es naiteké ni hemen gehiago lusa ; Juan behar dut ene egin bidien betheserat frantsiaren bertse basterrerat : Egorriko dauskitsut berriak ahalik eta lasterrena, eta usuena ; Orhoituko nais sutas ene othoitsetan, eta ene urhatsek ibil arasten nauten lekhu orotan

**28.** Horra beras jende onak ; gure hitskuntsak abiatseko orénean ; Lau orenak siren hauk iragan gintuenean ; Abiatu nintzen beras etchetik oro beroki besarkaturik musus estalirik, eta nigarretan utsirik ; Soinek dembora berean usten baitsauteaten bihotsa ongi tristerik ; Urrundu nintzen etchetik eguneko bisigarria harturik, galtsar aspian paket batean : Eta ene urhatsak

horien iragaiteko, eta atxik zetzan zure urats faltso guztietan, betetzen zaituelarik ezin bereiziko pazientzia eta susdura batez. Beraz, ene kreatura maiteak, orori mintzo natzaizue, deit dezagun Jainkoa beti sosegurik gabe gure oren gaiztoetan, eta orienta ditzagun gure bihotz eriak hari buruz.

Batzuetan ez du ihardesten manera ageri batez. Hori egia da. Bainan ez dezagun beldurrik izan, beilatzen du. Noiz eta ere uste baitugu utsiak garela. Hor da aldean, ikusten ditu gure uspeldurak. Eskain diezaigun, beraz, denak bihotz onez. Halarikan ere, haren agonia izigarriaren petik izanen gara.

**26.** Uzten zaitut, beraz, lagun maitea. Haurrak eta gurasoak konsolagarri erraiten dizudalarik, ez adiorik eta ikus arte.

Solas honi ihardetsi zidana ene andreak hau zen:

Eskerrak dizkizut, ene senar maitea, zure solas konsolagarriez eta denbora berean altxagarriez. Ez dut geroaz eta darraizkon ondorioez axola handirik baldin eta heldu bazaizkit gibelera bizirik. Bainan zure gehiago ez ikusteko beldurak jautsarazten dit ikara. Beldur naiz. Beldur naiz anitz.

**27.** Ah, gizagaixoa! Haurkeriak horiek oro. Deskantsa zaituz. Badakit ez nautela ehoko ene baitan zerbaitek erraiten dit, eta badut konfidentzia Jainkoa baitan, eta haren esperantzan. Ene izatean senditzen dudan karrak erraiten dit garbiki zenbait denboraren buruan atxemanen zaituztedala uzten zaituztedan bezala. Haurrak apur bat handituak, bainan oratu ditugun bi naturalea hek berak aurkituko ditudala gero ere. Ikus arte, beraz, Maria Juana maitea. Ez naiteke ni hemen gehiago luza. Joan behar dut ene eginbideen betetzerat Frantsiaren bertze bazterrerat. Igorriko dizkizut berriak ahalik eta lasterrena eta usuena. Oroituko naiz zutaz ene otoitzetan, eta ene urratsek ibilarazten nauten leku orotan.

**28.** Horra beras jende onak, gure hizkuntzak abiatzeko orenean. Lau orenak ziren hauek iragan gintuenean. Abiatu nintzen beras etxetik, oro beroki besarkaturik, musuz estalirik eta nigarretan utzirik, zeinek dembora berean uzten baitzidaten bihotza ongi tristerik. Urrundu nintzen etxetik eguneko bizigarria harturik, galtsar azpian pakete batean, eta ene urratsak

baiona alderat gidatu : libretak manua emaiten sautan bez(ala) ; harmetan jartseko : Gizonaren egunak etsiren, duda gabé aski laburrak eta aski miserableak ; Behar da orainon bisiaren irriskatserat jua hiltseko (lanj)ererat ; Guduka nahasi eta odoltsuetan nun besoak harmatuak baitiré fulias ; Parthe hartu nahi eta es : Herrian iragaitean jua nintzen elisako egin biden bethetserat, Eta Jaun erretorak erran sautan besala haren etchera goisekoaren hartserat eta ene asken adiuén egiterat ; Baionara heldu nintzen sortsi orenak heineko ene aneiarekin ; eta sarthu gastelu berria deitsen den soldadotegirat Koinataren etchean gosari on bat egin ondoan ? Etsen dembora lusé jua, Laster esarri gintuzten arropa berritan eta uhales gorphutsa aintsin gibeletan gurutsekaturik, harmetan paratu ; Sombeit egun iragan nintuen hiri hortan ; egun oros lehen ikhasirikako malobrak berritus ; Eta ilhuntsentan ostatus ostatus kurritus adichkide sombeitekin ; Sombeit baso arno klikatus.

**29.** Gerlarat abiatseko besperan andrea ethorri sitsautan asken aldikots ikhusterat, Gaichua lurra (besa)in tristé ; koloreak eta itchura guziak jada galduak ; Lehen begi kolpean berean esagutu nuen ihardokitseko berechtasun huni behar saiskola beras goragoko indarrak gosta ? Elgarri agurak bihurtu ondoan ; Haren lehen galdea isantsen, Jakitea eia banakienes nois abiatsen nintzen gerlarat ; Ordukots jakintsun jarria nintzelakots, ihardesten ahal isan nion biharamunean goiseko bi orenetan ginuela bilkura ; Eta hartarik lekhura abiadura ; Huna beras gu senhar emastien asken hitsak ! Andreak erran sauntan..., Sombat ere dembora Jinkoari plaser isanen batsaio nitarik urrun sure segitsea ; surea isanen nais, nun nahi gertha saitsin, bethi gusia. Ekhariskiatsut machelak eman diskadiatsun sombait musu ? Nik ihardetsi nion., Berechtasunak irauten duen dembora gusian ; gauasko eta egunasko oren gusietan betheko dusu suré presentsias denetan ene bihotsa ? Orainon andreak..., gerlak irauten duen besembat dembora, eta gero ere, ethorriker ere uspeldua edo desfiguratua, eta es orai bainon ederrago ; Maité isanen saitut bethi ? –Nik-Bisiak irauten duen besembat dembora ; Sure bihotsa egonen da ene baithan ederrena ; Eta isanen dut arima ohoratua tombaraladino : - Es adiorik, eta berrits arthé ene bihotseko lorea ;

Baiona alderat gidatu, libretak manua ematen zidan berehala armetan jartzeko. Gizonaren egunak ez ziren, duda gabe, aski laburrak eta aski miserableak. Behar da oraino biziaren irriskatzerat joan hiltzeko lanjererat. Guduka nahasi eta odoltsuetan non besoak armatuak baitira furiaz. Parte hartu nahi eta ez. Herrian iragatean joan nintzen elizako eginbideen betetzerat, eta jaun erretorak erran zidan bezala, haren etxera goisekoaren hartzerat eta ene azken 'adiuen' egiterat. Baionara heldu nintzen zortzi orenak heineko ene anaiarekin, eta sartu Gaztelu Berria deitzen den soldadotegirat koinataren etxean gosari on bat egin ondoan. Ez zen denbora luze joan. Laster ezarri gintuzten arropa berritan eta uhaiez gorputza aitzin gibeletan gurutsekaturik, armetan paratu. Zenbait egun iragan nituen hiri hortan, egun oroz lehen ikasirikako malobrak berrituz. Eta iluntzetan ostatus ostatus kurrituz adiskide zenbaitekin, zenbait baso arno klikatuz.

**29.** Gerlarat abiatzeko bezperan andrea etorri zitzaidan azken aldikotz ikusterat, gaixoa, lurra bezain triste, koloreak eta itxura guztiak jada galduak. Lehen begi kolpean berean esagutu nuen ihardokitseko bereiztasun honi behar zaizkiola, beraz, goragoko indarrak gusta. Elkarri agurak bihurtu ondoan, haren lehen galdea izan zen jakitea eia banekienez noiz abiatzen nintzen gerlarat. Ordukotz jakintsun jarria nintzelakotz, ihardesten ahal izan nion biharamunean goizeko bi orenetan genuela bilkura, eta hartarik lekora abiadura. Huna, beraz, gu senar-emazteen azken hitzak ! Andreak erran zidan... Zenbat ere denbora Jainkoari plazer izanen batzaio nitarik urrun zure segitzea, zurea izanen naiz, nonahi gerta zaitezen, beti guztia. Ekarzikidazu maxelak eman diezazkizudan zenbait musu. Nik ihardetsi nion... Bereiztasunak irauten duen denbora guztian, gauazko eta egunazko oren guztietan beteko duzu zure presentziaz denetan ene bihotza. Oraino andreak... Gerlak irauten duen bezainbat denbora, eta gero ere, etorriker ere uspeldua edo desfiguratua eta ez orain baino ederrago, maite izanen zaitut beti. -Nik- Biziak irauten duen bezainbat denbora, zure bihotza egonen da ene baitan ederrena, eta izanen dut arima ohoratua tonbaraino. Ez adiorik, eta berriz arte, ene bihotzeko lorea. Oroit zaitetz etorriko naizela Jainkoaren laguntzarekin batean denbora laburrik arte.



orhoit saité ethorriko naisela Jinkoaren laguntsarekin batean dembora laburrik arthé ?

**30.** Biharamunean astehartea : Atsar orena oren bakotchean ; Jeiki ginen eta kafe chorta bat hurrupatu ondoan ; bi orenetan elgarretara bildu, katedraleko plasan ; Handik abiatu hirur orenetan atabal eta klerunak aintsinean ; Orainon goisa isana gatik, hainits jende jin saukhu agurren bihurtserat ? Kargadorean egoiten garé, hirur orenen heina ; Amakatsioneak akabatu ondoan, Metatsen gare soin gure karroetan ; Berrogei baten heina bakotchean ; Juntatuak garé sardinak barrilean besala ; Eta bero hari du ; Abiatsea sei orenetan ; iragaiten ditugu, Bokale, Undresé, Sembitsens, akhité ; eta handik segidako herriak ; Burdin bidetako saintsalé gisonek, presentatsen dauskuté harmak, Ondoan iragaitearekin ; Senbitsensen ; Jende osté batek igurikitzen gaitu garako inguruetan ; Aphespiku batek ; benedikatsen gaitu, eta emaiten abituaren ordé karraitsen den medail bedera ; Eta Jesusen bihots sakratua ; lenasko oihal churi baten gainean josia ; oihal gorris ; Gure treina estalia da lores eta hostoila berdes ; Hemen khambiatsen dituste jadanik beroak funditu dituenak ? Akhiterat heltsen hameka ... (*hostoa andeatua*)

**31.** Mortsentzen egiten dugu ahoko janhari aphur baten erresaldua : Serbitsatuko sauskigu seren gaki garen treinean piayak luse isaitea hitsemaiten du ? Gelditse berri bat Bordalen sei orenak inguruan ; Handik landa Kutrasen kafearen egitea ; Han iraganik oren bat eta erdi ilhuna heldu da ; Igaraiten garé Angulemeko, Puatieko, eta Turreko gara desertuetan ; Biharamunean gelditsen garé Bluan ; eta hartzen kafea ; Segitsen dugu Luareko urhaits handia Orleaneko Hiriraino ; Gero ikhusten ditugu Bosiko selhai handiak : harrituak jarri ginen sabal sabalik begiak hango ikaragarrisko ogi eremuer, eta sekulako haise eiherer beha ? Biharamunean argi urratsean, nun guré treinak kurritsen baitu galgordesko airé batean, bideak erretsen dituela heltsen garé gure jauts lekhura ; Tuleko forta baten sangoetara : Jautsi orduko entsuten ditugu pesa tiroak Pontamusoneko aldetik ;

**32.** Handik hemeretsi arthean gudukatu ginen beroki Muluseko aldean ; Han egun bakhar hoitan ongi miretsi ondoan ; Entsutea ginuen besala, egun hortako hameketan bero haskar

**30.** Biharamunean, asteartea. Atzar orena, oren bakotxean. Jeiki ginen eta kafe xorta bat hurrupatu ondoan, bi orenetan elgarretara bildu katedraleko plazan. Handik abiatu hirur orenetan, atabal eta kleronak aitzinean. Oraino goiza izanagatik, anitz jende jin zaigun agurren bihurtzerat. Kargadorean egoten gara hirur orenen heina. Amakatsioneak akabatu ondoan, metatzen gara zein gure karroetan. Berrogei baten heina bakotxean. Juntatuak gara sardinak barrilean bezala. Eta bero ari du. Abiatzea sei orenetan. Iragaten ditugu Bokale, Undrese (*Ondres*), Senbitzenz (*Saint-Vincent*), Akitze eta handik segidako herriak. Burdin bidetako zaintzale gisonek presentatzen dizkigute armak ondoan iragatearekin. Senbitzenzen jende oste batek igurikitzen gaitu garako inguruetan. Apezpiku batek benedikatsen gaitu eta ematen abituaren orde karraiatzen den medail bedera, eta Jesusen bihotz sakratua lenazko oihal xuri baten gainean josia oihal gorris. Gure treina estalia da lores eta hostoila berdez. Hemen kanbiatzen dituzte jadanik beroak funditu dituenak, Akitzen heltzen hamaika ... (*hostoa andeatua*).

**31.** Mortzentzen (*Morcenx*) egiten dugu ahoko janari apur baten erresaldua : zerbitzatuko zaizkigu zeren joaten garen trenean piayak luse izatea hitzematen du. Gelditze berri bat Bordalen sei orenak inguruan. Handik landa Kutrazen (*Coutras*) kafearen egitea. Han iraganik oren bat eta erdi, iluna heldu da. Iragaten gara Angulemeko (*Angoulême*-ko), Poitiekoko (*Poitiers*-ko) eta Turreko (*Tours*-eko) gara desertuetan. Biharamunean gelditzen gara Bluan (*Blois*), eta hartzen kafea. Segitzen dugu Luareko (*Loire*-ko) urgaitz handia Orleaneko (*Orléans*-eko) hiriraino. Gero ikusten ditugu Boziko (*Beauce*-ko) zelai handiak. Harrituak jarri ginen zabal-zabalik begiak hango ikaragarrizko ogi eremuer eta sekulako haize eiherer beha. Biharamunean argi urratzean, non gure trenak kurritzen baitu galgordezko aire batean, bideak erretzen dituela, heltzen gara gure jauts lekura, Tuleko (*Toul*-eko) forta baten sangoetara. Jautsi orduko entzuten ditugu peza tiroak Pontamuzoneko (*Pont-à-Mousson*-eko) aldetik.

**32.** Handik, hemeretsi artean gudukatu ginen beroki Muluzeko (*Mulhouse*-eko) aldean. Han egun bakar horietan ongi miretsi ondoan, entzutea genuen bezala, egun hortako



batekin abiatu ginen beljikara burus ; Nun gorphuts harmadak hartu behar baitu pharté operacioné jada hasietan ; Gauean igaraiten garé, Komertsi, Leruvile, Bar-le-duk. Vusié eta Hirsonen gaindi ; garak desertu siren eta gaua fresko.

**33.** Biharamunean, jausten garé Anorren sortsiak heinean ; Hiria arras pullita da, brika gorrisko etchekin ; Handik oines sarthu ginen beljikan ; Eta heldu Charleruako gudukarat, eta desmasietarat

**34.** Denak jakintsun saresten besala, es dut erran beharrik ser isan siren ondoko egunak ; Alemanek ekharri gindusten fundikatus parisera ; Eta nihaurek badakit ser oinaseak jasain nintuen hamaborts bat egunes ; hamalau gauetarik es ginuen lo egin bates baisik, Dembora gusian gosiak gerrendua ; Eta egarriarekin sintsurra agortua : Eta hala ere kurritu behar hil edo bisi es baginuen nahi etsaiaren astaparretara erori ;

**35.** Pariseko hegiraino ethorri ginen beras gibelka ; Etsaias bethi takoinetarik segitua, eta espatas gerritik pusatua : Lagun Eskualdun batek galdé egin sauntan gerla hau nola Akhabatuko othé sen) Nola hasia sen ere es ginakién soberarik. Eta huna harrek ser erran sauntan) (Acheria eta otsoa elgarrekin bisi siren demboran tsarkeria merke sutela ba(tak) ala bertseak ; Soinek gehiago egin suten beren laphurtasuna ; Eta gero elgarren artean guduka ) Hik egina duk sion otsoak, - Es hiré lana duk, ihardesten suen bethi acheriak ) Eta uste dut hola hola isanen den oraiko gerla hunen hausia ;

**36.** Lagun horrek berak, Gerlaren hastapenas solas pollit bat erran sauntan orainon Ser den gerla hau ? Mus partida bat ; Alemana joko gaitza eskuetan, Frantsiari jazarri ; gocho gochoa hasi sen partida ? Alemanak : inbido ! – frantsesak : tira ! Hirur (tan)tos inbido ttikia ! –tira ! Hor dago ! – Kanta – Bainan nork ikhusi du egundaino holako karten agertse lusea ? Ser da bada gerthatu ? Hirugarren jokalaria bat artean sarthurik jokhoa nahasi ; Anglesak ditu paré eta jokoak partidaren trenkatseko ; Bere ustes ? Bai ! Frantsesak pareak, eta Anglesak medeak hogoi eta hamabi jokorekin ; Bainan Alemanak dobleak eta 31 jokho eskuetan bethi nausi ?

hamaiketan bero azkar batekin abiatu ginen Belgikara buruz, non gorputz armadak hartu behar baitu parte operacione jada hasietan. Gauean igaraten gara Komertzi (Commercy), Leruvile (Lérouville), Bar-le-duk (Bar-le-Duc), Vuzié (Vouziers) eta Hirzonen (Hirson-en) gaindi. Garak desertu ziren eta gaua fresko.

**33.** Biharamunean jausten gara Anorren (Anor-en) zortziak heinean. Hiria arras pollita da, brika gorrizko etxekin. Handik oinez sartu ginen Belgikan eta heldu Charleruako (Charleroi-ko) gudukarat eta desmasietarat.

**34.** Denak jakintsun zaretan bezala, ez dut erran beharrik zer izan ziren ondoko egunak. Alemanek ekarri ginduzten fundikatuz Parisera, eta nihaurek badakit zer oinazeak jasan nituen hamabortz bat egunez. Hamalau gauetarik ez genuen lo egin batez baizik. Denbora guztian goseak gerrendua eta egarriarekin zintzurra agortua. Eta hala ere, kurritu behar hil edo bizi, ez bagenuen nahi etsaiaren aztaparretara erori.

**35.** Pariseko hegiraino etorri ginen beraz gibelka. Etsaiak beti takoinetarik segitua, eta ezpataz gerritik pusatua. Lagun euskaldun batek galde egin zidan gerla hau nola akabatuko ote zen. Nola hasia zen ere, ez genekien soberarik. Eta hona harek zer erran zidan. Axeria eta otsoa elgarrekin bizi ziren demboran, tzarkeria merke zutela bata ala besteak. Zeinek gehiago egin zuten beren lapurtasuna, eta gero elgarren artean guduka: — Hik egina duk, zion otsoak. — Ez hire lana duk, ihardezten zuen beti axeriak. Eta uste dut hola hola izanen den oraingo gerla honen auzia.

**36.** Lagun horrek berak, gerlaren hastapenas solas pollit bat erran zidan oraino. Zer den gerla hau? Mus partida bat. Alemana joko gaitza eskuetan Frantsiari jazarri. Goxo-goxoa hasi zen partida. Alemanak: — Inbido ! Frantsesak: — Tira hirur. — Inbido ttikia ! — Tira ! — Hor dago ! —Kanta. Bainan nork ikusi du egundaino holako karten agertze luzea? Zer da bada gertatu? Hirugarren jokalaria bat artean sarturik jokoa nahasi. Ingelesak ditu pare eta jokoak partidaren trenkatseko. Bere ustez, bai. Frantsesak pareak eta Ingelesak medeak hogei eta hamabi jokorekin. Bainan Alemanak dobleak eta 31 joko eskuetan beti nagusi.

**37.** Jokhoa itsuli sen istan bat marneko gudukan ; Bainan etsuen hainits iraun ; Egundaino besala hartu suen etsaiak aintsineko eskua eta gaina ; Eta berme atchiki Buruilaren hamabian gelditu lekhuak kokatus gerostik ? Handik harat lekhuaren gainean egiten ginuen guduka berorik elgar esin bentsutus. Hilabethé horren hogoi garrena sen , gois argi eta garbi bates, goiseko lau orenetan jokatu ginenak inguruna hartan orainon egin sen gudukarik handienez ; Ordukots errekek eginak gintuen bi aldetarik elgarren berdinak, eta lehen aldikots moda berrias jokatu ginen = Lau orenetarik eta hamekak arthé elgarri tiroka, hogoi eta hamar bat metretan elgarretarik : Etsen berechtasuna handia ; Orainon gutiagokoa sen baioneterat juan ginenean ; Deithuran eskastu sen bistan da frango ; Bainan etsasuela usté isan bertsaldek gutiago sela ; Etsen bi aldetarik Jatsu eta haltsu besala desmatsiak berdintsu siren ; Eta erran behar dut beresiki gure alderdian ; Etsaiaren Artilleriak herrautsiak atchiki gintuela ; Abanchu ehortsia gure gordailuetan ; Hala nola gureak etsituen gogorki khechatu alemanak lau ukhaldi goisean egorri ondoan ; lerrotik hurbilchko selakots, lekhuak hustu situen, eta gibelago jarri ; han dembora gusia ichil eta mutu egoiteko ? Hamekak siren guduka minen minean selarik, ohartu ginenean es giniola gehiago atchik buru etsaiari ; Ernatu ginen laguntsa galdatzerat ; Bainan etsinedaketé asma gure bihotseko lastura jakitéarekin etsitakela nehor igan misione horren eremaiterat ?

**38.** Beha aintsin gibel eta sahetsetarat ; Lagunen ordé es ginuen ikhusten etsairik baisik ; Guk deusik ikhusi gabé eta deuseri ohartu gabe, Mendiska bat ginuelakots gibelean ; Etsaiak inguratu gintuen, acheria sakhurrek bere silhoa besala : Etsen deus egitekorik bakhar bakharra ginen lauetan hogoi bat bertsé orotarik berhechiak eta preso hartuak ; Burua bi balas hunkitua isanik, burua aphur bat durdusatua nuen ; eta ene gogoan etsen sartzen ahal ongi ser iragaiten sen ; Har gatik orhoitsen nais ikhusirik Aleman ainsindari bat heltsen gure erreka ichkinerat, harmak botha gintsan erraitera ; Eta hekien eskuetarat eroriak ginela adiarastera ethorria ; Esin bertsea sen = Esagutsa aphur bat plomatu sitsautan arthé herchi hortan Eta nik ere esagutu nuen es ginuela deus hoberik egiteko ; baisen Sumetitsea hoikien manueri ;

**37.** Jokoa itzuli zen istant bat Marneko gudukan. Bainan ez zuen anitz iraun. Egundaino bezala hartu zuen etsaiak aitzineko eskua eta gaina. Eta berme atxiki buruilaren hamabian gelditu lekuan kokatuz geroztik. Handik harat lekuaren gainean egiten genuen guduka berorik elgar ezin bentzutuz. Hilabete horren hogeigarrena zen, goiz argi eta garbi batez, goizeko lau orenetan jokatu ginenak ingurune hartan oraino egin zen gudukarik handienez. Ordukotz errekek eginak genituen bi aldetik elgarren berdinak, eta lehen aldikotz moda berrian jokatu ginen. Lau orenetarik eta hamaikak arte elgarri tiroka, hogei eta hamar bat metrotan elgarretarik. Ez zen bereiztasuna handia. Oraino gutxiagokoa zen baioneterat joan ginenean. Deituran eskastu zen, bistan da, frango, bainan ez ezazuela uste izan bestaldetik gutiago zela. Ez zen bi aldetarik Jatsu eta Haltsu bezala, desmatsiak berdintsu ziren. Eta erran behar dut, bereziki gure alderdian, etsaiaren artilleriak errautsiak atxiki gintuela. Abantzu ehortsia gure gordailuetan. Hala nola gureak ez zituen gogorki kexatu Alemanak lau ukaldi goizean igorri ondoan. Lerrotik hurbilxko zelakotz, lekuak hustu zituen eta gibelago jarri, han denbora guztia isil eta mutu egoteko. Hamaikak ziren guduka minenminean zelarik ohartu ginenean ez geniola gehiago atxik buru etsaiari. Ernatu ginen laguntza galdatzerat, bainan ezin dateke asma gure bihotzeko lastura jakitearekin ez zitakeela nehor igan misione horren eramaterat.

**38.** Beha aitzin, gibel eta sahetsetarat. Lagunen orde, ez genuen ikusten etsairik baizik. Guk deusik ikusi gabe eta deusi ohartu gabe, mendixka bat genuelakotz gibelean, etsaiak inguratu gintuen, axeria zakurrek bere zuloa bezala. Ez zen deus egitekorik, bakar-bakarra ginen lauetan hogei bat beste orotarik bereziak eta preso hartuak. Burua bi balaz hunkitua izanik, burua apur bat durdusatua nuen, eta ene gogoan ez zen sartzen ahal ongi zer iragaten zen. Hargatik oroitzen naiz ikusirik Aleman aintzindari bat heltzen gure erreka ixkinerat, armak bota genitzan erratera. Eta haien eskuetarat eroriak ginela adieraztera etorria. Ezinbestea zen. Ezagutza apur bat plomatu zitzaidan, arte hertsia hortan. Eta nik ere ezagutu nuen ez ginuela deus hoberik egiteko baizen sometitza hoien manueri.

Guk guduka hastapenean besembat gizon ; hartu gintusten hauek ere akhabantsan ; es ginuen elgar erastekorik ; batsu bertseak besembat baginen ) Lanjera aphur bat urrundu senean ereman gintusten kartier jeneralerat, handik eremanak isaiteko Alemania Barnerat ; kolpatu andana bat utsi ginuen hauekien gurutsé gorrian arthatuak isaiteko ; Batsu besoak mostuak, bertseak isterrak ; Batek hanka chehatua ; Bertse batek gorphutsa alde bat bertse iragana borts balas ; Eta bertse holako asko : Urrikalgarri sen aditsea hekien oihuak eta deihadarrak ; Eta aré urrikalgarriago ikhustea Lagun gaicho hokien estatua.

**39.** Handik 20 garrenean abiatu eta ; heldu ginen gure lehen egoitsarat, Sei egunen buruan ; Erran nahi baita 26 arratsean ; Iragan gintuen Laoneko hiria ; berbengua, Marlekua eta Hirsonekoa oines Anoreraino Beljikara juaiteko jautsi lekhuak embarkatseko, Alemaniarat burus juaiteko )

**40.** Gerostik hunat hemen gaudé haukien manuen aspiko ; gogoia ilhunchko ; Bainan etsasuela usté isan hargatik ; Seren preso garen dohakabé garela, eta borthiski erabiliak ? Es huna ! Nik ser erran desaketadan : Badu hirur urthé alemanian naisela ; Behin ere orainon es aintsindari, es soldado batek, es dautet erran hits bat gaiski plasaturik ; Ongi kontrarioa usté dut intelegatzen ahal baginé arras lagunak ginteskeen elgarrekin ; Entelegatsen dusué ! Hauk ere gisonak dire gu besala, eta aita familiakoak, gerla isigarri hunen akhabantsaren aiduru dagotsinak ?

**41.** Denek ongi kurritzen duté hemen, Ongi arthatuak garé ; Eta kaneko Aleman autoritatek, beren egin ahalak oro egiten dituste gure sorthearen estitseko ; Esdesakegu isan ikhustaterik baisik jaun horientsat ; Eta orhoitsapen esin ahaintsisko bat baisik ;

**42.** Etsasuela egin odol gaistorik guretsat ; Esdauku deusek huts egiten orai artean segurik ; Es dugu isan orainon den mendreen botoinik gure gainean ; Jaun Medikuek arthatsen dituste arras ongi eriak ; Artha nesario diren gusiak hartzen dituste eritasun ooren urruntseko ;

**43.** Badugu komendant bat, hartas kausitsen den gusia egiten duena presonerer, serbitsu, eta atsegin egiteko. Kanian garenean ; karta jokotan ari gare, eta anderetan, edo irakurtsen dugu

Guk guduka hastapenean bezainbat gizon hartu gintuzten hauek ere akabantzan. Ez genuen elgar erastekorik ; batzuk besteak bezainbat baginen. Lanjera apur bat urrundu zenean eraman gintuzten kartier jeneralerat, handik eramanak izateko Alemania barnerat. Kolpatu andana bat utzi genuen horien gurutze gorrian artatuak izateko. Batzuk besoak moztuak, besteak izterrak. Batek hanka xehatua, beste batek gorputza alde bat beste iragana bortz balaz, eta beste holako asko. Urrikalgarri zen aditsea haien oihuak eta deiadarrak, eta are urrikalgarriago ikustea lagun gaicho horien estatua.

**39.** Handik 20 garrenean abiatu eta, heldu ginen gure lehen egoitzarat sei egunen buruan, erran nahi baita, 26 arratsean. Iragan genituen Laoneko hiria, Berbengua (**Vervins**), Marlekua (**Marly**) eta Hirson-ekoa oinez Anor-eraino Belgikara joateko jautsi lekuan enbarkatzeko Alemaniarat buruz joateko.

**40.** Geroztik honat hemen gaude hauen manuen azpiko, gogoia ilunsko, bainan ez ezazuela uste izan hargatik, zeren preso garen dohakabe garela, eta bortizki erabiliak. Ez! Hona nik zer erran dezakedan. Badu hirur urte Alemanian naizela. Behin ere oraino ez aitzindari, ez soldado batek ez didate erran hitz bat gaizki plazaturik. Ongi kontrarioa, uste dut entelegatzen ahal bagina arras lagunak gintezkeen elgarrekin. Entelegatzen duzue ! Hauek ere gizonak dira gu bezala, eta aita familiakoak, gerla izigarri honen akabantzaren aiduru daudenak.

**41.** Denek ongi kurritzen dute hemen. Ongi artatuak gara. Eta kaneko (**zelaiko**) aleman autoritateek, beren egin ahalak oro egiten dituzte gure zortearen ezititzeko. Ez dezakegu izan ikustaterik baizik jaun horientzat, eta oroitzapen ezin ahantzizko bat baizik.

**42.** Ez ezazuela egin odol gaiztorik guretzat, ez zaigu deusek huts egiten orain artean segurik. Ez dugu izan oraino den mendreen botoinik gure gainean, jaun medikuek artatzen dituzte arras ongi eriak ; arta nesario diren guztiak hartzen dituzte eritasun ooren urruntzeko.

**43.** Badugu komendante bat, hartaz kausitzen den guztia egiten duena presonerer zerbitzu eta atsegin egiteko. Kanian garenean, karta jokotan ari gara eta anderetan (**jeu de dames**), edo irakurtzen dugu zenbait liburu etxetik

sombeit liburu etchetik ethorrietarik, eta parisko edo frantsia barneko lagunek isanetarik ;

**44.** Dembora eder denean, bagoatsi gure barraketarik khampo aire onaren hartserat ; Badiré fotbalian jokatsen direnak ere ; Igandé arratsaldetan juaiten ahal garé konseraren ikhusterat ; Seren gure arthean bada chirribikari onik ; Merseburreko hiriak fornitsen dioté nahi besembat chirribika ; eta komandaturak erresalbatsen dioté barne handi bat ; beren errepika eta konserren egiteko ?

**45.** Aldis paketen heltseari, eta heien partillari, es dut erengurarik ; Isaiten ahal sareste osoki seguratuak ; Hoikien serbitsua hoin baliosa guretsat egina dela salbuki, eta manera berezi bates ; Badugu barne handi bat ; Nun paketak eremanak baitiré garatik ; kaneko korbetas ; Eta klasatuak Lagun frantseses, hortako bakharririk isendatuak direnetas ? Gero ikhartuak dire eta emanak, frantses kargudunen begiramenduaren pean ;

**46.** Erraiten dautsuet beras egiak manatsen duen besala frankoki ; Alemanian kartselero sarthus gerostik ongi arthatua naisela ainsindari eta soldado alemanes ? Es dakité ser egin guri plaser egiteko ; Alcharasi dute teatré bat, eta chirribika konfrario bat, sinemarekin ? borts sos pagatsen dugu sartsea ; Eta dirua itchuria da ongi egilearen bureurat erien sokhorritseko ; Denak ongi, eta burus eginak dire, eta kurritsen duté esinago hobeki ; es dut errenkuratseko ) (kontent nais)

**47.** Bainan dakisuen besala esgiaske oro, gausa miragarri hoier beha egon ; Lanian ere ari garé pharterik handiena ; bakotcha bera eroria den lekhuetan ; es gare tratatuak etsai besala : Edo soin aldetarik ; isan dadin soldado edo sibil ; Aski ontsa hasiak gare mendearen arabera ; Eta ontsa etsanak chukoan ; Ni naisen fabrikako jendeak arras gisakoak diré ; eta halaber herriko egoileak ? Hits bates arras ongi ikhusiak garé ; Eta desiratsen dugu denek gure hemengo dembora akhaba dadin lekhu berean ?

**48 49.** Letrak ere isaiten ditugu sortsi gusian ; Es da gausa bat handia, kasik deusik, paperesko piltzar bat ; bertsen dako baliorik gabe, eta guretsat esin aski estimatuak – Hortakots ditugu ardura irakurtsen gogos ikhasi nahi bagintu besala ; eta begiratsen arthuski,- Sortheak egoitsetarik urrun atchikitsen dituenentsat, es

etorrietarik, eta Pariseko edo Frantzia barneko lagunek izanetarik.

**44.** Denbora eder denean bagoaz gure barraketarik kanpo aire onaren hartzerat. Badira futboleak jokatzeko direnak ere. Igande arratsaldetan joaten ahal gara kontzertuaren ikusterat, zeren gure artean bada xirribikari onik. Merseburg-eko hiriak fornitzen diote nahi bezainbat xirribika eta komandaturak erresalbatzen diote barne handi bat beren errepika eta kontzertuen egiteko.

**45.** Aldiz, paketen heltzeari eta heien partilari, ez dut erengurarik. Izaten ahal zarete osoki seguratuak, horien zerbitzua hain baliosa guretsat egina dela salbuki eta manera berezi batez. Badugu barne handi bat non paketak eramanak baitira garatik kaneko korbetaz. Eta klasatuak lagun frantsesez, hortako bakarrik izendatuak direnetaz. Gero ikertuak dira eta emanak frantses kargudunen begiramenduaren pean.

**46.** Erraten dizuet beras, egiak manatsen duen bezala frankoki, Alemanian kartzelero (**presoner**) sartuz geroztik ongi artatua naizela aitzindari eta soldado alemanez. Ez dakite zer egin guri plazer egiteko. Altxarazi dute teatro bat eta xirribika kofradia bat zinemarekin. Borts sos pagatzen dugu sartzea, eta dirua isuria da ongi egilearen bulegorat, erien sokorritzeko. Denak ongi eta buruz eginak dira, eta kurritzen dute ezinago hobeki. Ez dut arrenkuratseko. Kontent naiz.

**47.** Bainan dakizuen bezala ez garateke oro gauza miragarri hoier beha egon, lanean ere ari gara parterik handiena bakotxa bera eroria den lekuetan. Ez gara tratatuak etsai bezala, edozein aldetarik, izan dadin soldado edo zibil. Aski ontsa hasiak gara mendearen arabera eta ontsa etzanak xukoan. Ni naizen fabrikako jendeak arras gisakoak dira eta, halaber, herriko egoileak. Hitz batez arras ongi ikusiak gara eta desiratzen dugu denek, gure hemengo dembora akaba dadin leku berean.

**48 49.** Letrak ere izaten ditugu zortzi guztian. Ez da gauza bat handia, kasik deusik, paperezko piltzar bat besteendako baliorik gabe, eta guretsat ezin aski estimatuak. Hortakots ditugu ardura irakurtzen gogoz ikasi nahi bagenitu bezala, eta begiratzen artoski. Zortzak egoitsetarik urrun atxikitzen dituenentsat, ez

daiteké erran ser loriaren ithurhocha den letra bat ; Desesperasionearen kontra ser esin akhabatusko erresurtsa ekharten duen presuner tristeari ; Es isana gatik ere esku artech bates iskiribatuak hek dakarkiusten hits chimpléek badute guretsat chilincha soinu arin batek baino grazia gehiago ; – Ser letra gochoak gure eskualdun bihotsarentsat ; Eta soinu alegeraki dakarskiuten urrundik, gure sor lekhuaren orhoitsapen maiteak ? Gure sor lekhuas hoin gochoki mintso sauskigun letrak baino hobeki ; Serk dauku sustatuko bihotsean sor lekhurat itsultseko lehia, Nihork es dio kompara ? Isanik ere den koblaririk handiena bere ispiritu eta dohainekin, harek es liro bere bertsu ederrekin gure oinhasea aphasega, Nola gure Maitéenek iskiribatu lerro bakarrek ?

**50.** Adichkidé maiteak ? Hoik gusiak hola, es soberarik gaizki, eta baginé ere hobeki ; Badugu bisi mendé huntarik aski ; gausa gusiek baduté beren mugerria ; Bainan gerla hunek esdakit ; jada hirur urthé hunen hastapenak, eta es orainon ikhusten akhabantsako itchurarik ; Pasiensia, eta kuraya hartses goihenduak gare, eta ispiritus bethi numbeit garé ? Orain artean gure gogoetak hondatu diré desesperasioneako itsaso batean ; (eta nois eta ere alchatu baititugu begiak serurat.. es dugu ikhusten ahal isan libertaterat ereman behar gintuen isarra), Sondatu dugu jendetasuna es da isan orain artean oinaserik baisesik ) Bainan egungo egunean ene aldetik ; Sartsen naisenean ene kontsientsako ilhunbé barnenetan ; ikhusten dut argitsen sendimendu berrisko argi dirdirant bat ; Eta sendimendu berri hau da ; Argi hunek emaiten dautan konsolacione bat ; Soina atsartsen baita ni haurreren barne beherenean ?

**51.** Sendimendu horrek berak erraiten daut : Urrikalmendua helduko dela laster munduaren salbatsera ; Bai ene adichkidé maiteak ; Gisonek, batsuek bertsesat urrikari duketenean ; eta Munduak aski oinasé pairatu duela entelegatu duketenean ! Orduan beharbada gisonak bilduko dire eta elgarri esku emanen ) Bisi mende huntarik atheraiak isanen gabela gogoan iragaiterekin ; Boskario batek lotsen nau hain askarki, nun disimulatsea baitut aski lan ;

**52.** Eskual herrian badakit chokho bat ferdaberriak gordetsen duena eta sasoinean sorhopilak uda lilis bestituak direnak ; Eta nun haurren irrien soinu alagerak nahasten diren

daiteke erran zer loriaren itur-hotsa den letra bat. Desesperasionearen kontra zer ezin akabatuzko erresurtsa ekarten duen presoner tristeari. Ez izanagatik ere esku artes batez izkiribatuak haiek dakarzkiguten hitz sinpleek badute guretsat xilintxa soinu arin batek baino grazia gehiago. Zer letra goxoak gure eskualdun bihotsarentzat. Eta zein alegeraki dakarzkiguten urrundik gure sorlekuaren oroitzen maiteak, gure sorlekuaz hain goxoki mintzo zaizkigun letrak baino hobek? Zerk digu sustatuko bihotzean sorlekurat itzultzeko lehia? Nehork ez dio konpara. Izanik ere den koblaririk handiena bere izpiritu eta dohainekin, harek ez liro bere bertsu ederrekin gure oinazea apazega, nola gure maiteenek izkiribatu lerro bakarrek.

**50.** Adiskide maiteak, horiek guztiak hola, ez soberarik gaizki, eta bagina ere hobeki, badugu bizimende hontarik aski. Gauza guztiek badute beren mugarrria bainan gerla honek ez dakit, jada hirur urte honen hastapenak, eta ez oraino ikusten akabantzako itxurarik. Pazientzia eta kuraia hartzez goienduak gara, eta izpirituz beti nonbait gara. Orain artean gure gogoetak hondatu dira desesperasioneako itsaso batean, eta noiz eta ere altxatu baititugu begiak zerurat, ez dugu ikusten ahal izan libertaterat eraman behar gintuen izarra. Sondatu dugu jendetasuna, ez da izan orain artean oinazerik baizik. Bainan egungo egunean ene aldetik, sartsen naisenean ene kontzientziako ilunbe barnenetan, ikusten dut argitzen sendimendu berrisko argi dirdirant bat. Eta sendimendu berri hau da, argi honek ematen didan konsolacione bat zoina atzartzen baita ni haurreren barne beherenean.

**51.** Sendimendu horrek berak erraiten dit urrikalmendua helduko dela laster munduaren salbatsera. Bai, ene adiskide maiteak, gizonak batzuek besteentzat urrikari duketenean eta munduak aski oinaze pairatu duela entelegatu duketenean, orduan beharbada gizonak bilduko dira eta elkarri esku emanen. Bizimende honetarik atheraiak izanen gabela gogoan iragaiterekin, boskario batek lotsen nau hain askarki, non disimulatzea baitut aski lan.

**52.** Euskal Herrian badakit xoko bat berdaberriak gordetzen duena eta sasoinean soropilak uda liliz beztituak direnak, eta non haurren irrien soinu



chorien khantueri, eta naturalesako harramantseri

Ene gogoek ; Deskantsus bethea den chokho hura = Bathaiatsen dute ene (Ametsa) Seren egin ditudan gusiek han duten simendua ) Han iragan ditudan ohiko dembora on hek iduritsen sait ikhustea orainon ; Ene karselako arima hunen ametsetan trebes ; Ene begien bistara heldu saiskit ohiko urhats gusiak nun dohakabeki ene gastetasuna iragan baita lasterregi.

**53.** Ordutik hunat bada hain gaindi ere khambiamendu ; Alegrantsia es da gehiago egoitsetan ; Gerlak hartu ditu aitak eta semeak ; Eta arbasoak seruetan dire ; Khantuek ere es dute gehiago oiarsunik ; Etcheak ilhun dire ; Laborariak harmetan dire ; Eta orai nork bada iraultsen ditu hildoak ;

**54.** Eraiteko esku arin bates artho bihiak, eta ogi bihiak) Eta gero nork ditu jorratsen lurrak, eta goisean argi urratsean eremaiten behiak alha pidetarat ; Haurrak lo es dagotsienez nork ditu hartzen belhaunen gainean, eta konsolatsen beren khantuekin ; Emasteak diré ; gasteak eta saharak adin orotakoak ; lanari eman dire eta es dute galdu kuraya ; Gaichoak hek ere, gerla hunen gatik lan doblien aspian dire ; Oh ! Ama eta Andre sublimoak nola umilatuak diren ; nork sekulan sondatuko du hoikien bihotsaren barnatasuna ; Biskitartean mehechi dituste laudoriorik beroenak Seren erresuma serbitsatsen dute eskuetan atchikis sega edo haintsurra ; Jinkoak benedika detsala gaichoak beren pena eta obra onen artean ;

**55.** Adichkide maiteak = Esperantsa aphur bat atchikitsen dutenak, es ditu frogak hain borthiski hunkitsen ; Ni ere Lehia handi batek harturik nago ohiko lekhuko horien Ikhusteko ; Eta kondatsen dut laster, horien berrits ikhustia Es nintzen igurikitsen holako nahi-gabé luse bati ; Es dakit ser pentsa es eta ere ser asma ; Biskitartean es nais desesperatua es eta ere deskurayatua ; Ongi kontrarioa ; indar isigarri bates atchikia aurkitsen nais ; Dohatsuki emaiten dauku jinkoak esperantsa ; Esperantsa horrek atchikitsen nau ; Eta esperantsa horrek berak emaiten daut nahi-gabé orori ihardokitseko indarra ; Eta esperantsa horrekin badut konfidentsia jinkoa baithan ; Hara sertako es naisen usten juaitera dolorerat ; Eta horra sertako igurikitsen dud(an) deskantsurekin ; Alegrantsiasko egun soragarri

alegerak nahasten diren txorien kantuei eta naturalezako harramantzei.

Ene gogoek, deskantsuz betea den xoko hura, bataiatzen dute ene ametsa, zeren egin ditudan guztiek han duten zimendua. Han iragan ditudan ohiko denbora on haiek iduritzen zait ikustea oraino. Ene kartzelako arima honen ametsetan trebes, ene begien bistara heldu zaizkit ohiko urrats guztiak non dohakabeki ene gastetasuna iragan baita lasterregi.

**53.** Ordutik honat bada han gaindi ere kanbiamendu. Alegrantzia ez da gehiago egoitsetan, gerlak hartu ditu aitak eta semeak, eta arbasoak zeruetan dira. Kantuek ere ez dute gehiago oiartzunik, etxeak ilun dira. Laborariak armetan dira, eta orain nork bada iraultzen ditu ildoak

**54.** ereiteko esku arin batez arto bihiak, eta ogi bihiak? Eta gero nork ditu jorratzen lurrak, eta goizean argi urratzean eramaten behiak alapidetarat? Haurrak lo ez daudenez, nork ditu hartzen belaunen gainean eta kontsolatzen beren kantuekin? Emazteak dira, gazteak eta zaharrak, adin orotakoak. Lanari eman dira eta ez dute galdu kurara. Gaixoak haiek ere gerla honengatik lan dobleen azpian dira. Oh! Ama eta andre sublimoak nola umilatuak diren. Nork sekulan sondatuko du horien bihotzaren barnatasuna? Bizkitartean, merezi dituzte laudoriorik beroenak, zeren erresuma zerbitzatzen dute eskuetan atxikiz sega edo aintzurra. Jainkoak benedika ditzala gaixoak beren pena eta obra onen artean.

**55.** Adiskide maiteak, esperantza apur bat atxikitzen dutenak ez ditu frogak hain bortizki hunkitzen. Ni ere lehia handi batek harturik nago ohiko lekuko horien ikusteko. Eta kondatzen dut laster, horien berritz ikustea. Ez nintzen igurikitzen holako nahigabe luze bati. Ez dakit zer pentsa, ez eta ere zer asma. Bizkitartean ez naiz desesperatua ez eta ere deskurariatua. Ongi kontrarioa, indar izigarri batez atxikia aurkitzen naiz. Dohatsuki ematen digu Jainkoak esperantza. Esperantza horrek atxikitzen nau eta esperantza horrek berak ematen dit nahigabe orori ihardokitzeko indarra. Eta esperantza horrekin badut konfidentzia Jainkoa baitan. Hara zertako ez naizen uzten joatera dolorerat. Eta horra zertako igurikitzen dudan deskantsurekin. Alegrantziazko egun zoragarri hortan, zeinak



hura ; soinak eman behar baitaut orai artean gabetua atchikitsen nauten libertate hura )

**56.** Preso egines gerostik piayatu nais aphur bat Alemaniako herri huntan ; Egin dut itsuli asko, egungo egunean nagon Sakseko herrichka huntara erortseko ; Nun hemen aurkitsen bainais hemeretsi hilabethé huntan ; Hemen ikhusten ditut, Mendiska, eta selhaiak ; Bainan es ditut ikhusten pireneetako mendiak ; Nun dire bada Larrun, hiru khor oak, eguardi mendia, eta segitsen diren gusiak ? Hemendik urrun Hemen kartiera suhaisua da, eta fago ederres bestitua ; Bainan nun dire eskual herriko haits sahar eta gaste berdenak, beren iraski charmantekin ; Hemen ikhusten dut orainon estainu bat herriaren eskuineko sahetsean gureari egité handia duena ; Bainan nun da gurea ?

**57.** Jende onak : Nahis naturalesa horiek oro ; Eta eneak berak nitarik urrunduak diren ; eremu gusietan trebes ikhusten ditut ene bistan ; Bisibetheak eta ardura onean ; Nahis hemen nagon, ene gogoa badabila hekien inguruan itsulika ; Eta orhoit arasten daut orhoitsapen ongi gochorik !

**58-59.** Bai ene adichkide Maiteak ; Esperantsa dut ! Eta nahi ditut laster ikhusi hurbildik ; Ene lehen urhatsak egin ditudan herria ; Eta ene haurtasuneko lehen irriak eskapatu saistan tokia ; Estitasunes jumpatua iragan dutan etchea ; Nahi ditut ikhusi ere : eskila dorrea haur haurretik maithatua ; Eta gero muthil gaste lerden, burus, besos, eta begis hichtu handitan pilota erabiltsen ginuen errebotak ? Gure itsas leihor choragarriak Donostia Guipuskoaren erregina ! Donibane siburu bere khantu ederrekin ! Biharritse ; iguskiaren parekoa, erregen eta erreginen egoitsa esin utsiskoa, Baiona bere bi ibai ederrekin ; Eskualdun marnigel saharren orhoitsapenes bethea) Gure arbasoen egon lekhu miragarriak, bere mendi selhaiekin, Urdin eta gorrast, basterrak alageratsen dituelarik ur chirripa garbien khantuak ; gure Mendietako lore liliak ; beren usain bihotsalchagarriekin. Egun oros eskaintsen ditut ene pleinuak seruari ; Baldin eta ichur desadan grazia lehen bai lehen eskual herrirat itsultsekoa ?

**60.** Han direnak ere bereak ikhusi nahituak dire. Esen gure lekhu han da ; Eta gison bat bethi ongi aurkitsen da, Aita(✠) baten egin bideak bethetsen ahal dituen lekhuhan ; Ene etchean ere neuré aiduru daude ; es direlakots ene bilha

eman behar baitaut orain artean gabetua atxikitzen nauten libertate hura.

**56.** Preso eginez geroztik piaiatu naiz apur bat Alemaniako herri honetan. Egin dut itzuli asko egungo egunean nagoen Sakzeko (Saxe-ko) herrixka hontara erortzeko, non hemen aurkitzen bainaiz hemeretzi hilabete hontan. Hemen ikusten ditut mendiska, eta zelaiak, bainan ez ditut ikusten Pirinietako mendiak, non dira bada Larrun, Hiru Koroak, Eguardi mendia (Pic du Midi) eta segitzen diren guztiak hemendik urrun. Hemen kartiera zuhaisua da eta pago ederrez beztitua. Bainan non dira Euskal Herriko haitz zahar eta gazte berdenak, beren irazki xarmantekin? Hemen ikusten dut oraino eztainu bat herriaren eskuineko sahetsean, gureari egite handia duena. Bainan non da gurea?

**57.** Jende onak, nahiz naturaleza horiek oro, eta eneak berak nitarik urrunduak diren, eremu guztietan trebes ikusten ditut ene bistan, bizibeteak eta ardura onean. Nahiz hemen nagoen, ene gogoa badabila haien inguruan itzulika eta oroitazten dit oroitzapen ongi goxorik!

**58-59.** Bai, ene adiskide maiteak, esperantza dut. Eta nahi ditut laster ikusi hurbildik ene lehen urratsak egin ditudan herria, eta ene haurtasuneko lehen irriak eskapatu zitzaizkidan tokia, ezitasunez junpatua iragan dutan etxea. Nahi ditut ikusi ere, ezkila dorrea haur-haurretik maitatua, eta gero mutil gazte lerden, buruz, besoz eta begiz hixtu handitan pilota erabiltzen genuen errebotak. Gure itsas leihor xoragarriak: Donostia Gipuzkoaren erregina! Donibane, Ziburu bere kantu ederrekin! Biarritz eguzkiaren parekoa, erregen eta erreginen egoitza ezin utzizkoa. Baiona bere bi ibai ederrekin, euskaldun marinel zaharren oroitzapenez betea. Gure arbasoen egonleku miragarriak, bere mendi zelaiekin, urdin eta gorrast, bazterrak alegeratzen dituelarik ur xirripa garbien kantuak. Gure mendietako lore liliak beren usain bihotz altxagarriekin. Egun oroz eskaintzen ditut ene pleinuak zeruari, baldin eta ixur dezadan grazia lehenbailehen Euskal Herrirat itzultzekoa.

**60.** Han direnak ere, bereak ikusi nahituak dira, ezen gure lekua han da. Eta gizon bat beti ongi aurkitzen da aita baten eginbideak ahal dituen lekuan. Ene etxean ere, neure aiduru daude, ez direlakotz ene bila etortzen ahal.

ethortsen ahal ; Senditsen ditut han utsirikako amen eta haurren deihadarrak ; Gu han beharres egiten ditusten urhatsak ikhusten ditut ; Badakit nola egiten ditusten beilak, eta bederatsi urrunak soinek bere kartieretan, Ahuspes jinkoari galde egiteko, itsul detsaten ðorainon bisi diren dohakabeak ;

**61.** Mundarraingo mendian ainhoako kaperan ; han du ene andre maiteak othoisten maria ; eta heldu den urthé oros maihatsean bidarteko ur onean ; Nahis s(om)beit grasia ihardetsi ; kontsolamendu aphur baten gosatseko ; Bainan orai artean hambat aldiz deithu ondoan ; es du isan desir suen sorionik ; Seren seruetako eta lurretako nausia ere ; behere huntako gobernadoreak besala dagon gure oihueri gogor eta mutu ? Hala nola grasia beren eské ibiltzen diré ; Bachenabartarrak Salbatoren, eta Siberotarrak Sant Antonin)

**62.** Hoinbertsé grigna eta dolores ; Gure nausi soberanoa ; eta jinko gusis botheretsua urrikalgakiula ; Eta nigarretan dauden arima onek hatcheman (des)atela aspaldian lehiatsen duten deskantsua ?

**63.** Beras ene adichkidé maiteak ; Huna hirur urthe iraganik, laugarrenari lothuak gabela bethi ber okhagarrisko bisi mendea segitus ; Bainan oraiko orenean badugu demboraren bortchas ethorria esperantsa aphur bat : gure Damusko orenetan jarraikitsen gaituena ; Laster gureak, adichkideak hausoak eta eskual herriko seru urdina ikhusiko dugulako esperantsas bihotsa gauditua dut ; Isan saresté beras ni besala askar eta dughiderik gabé ; Es da nigar egiteko dembora ; Aski nigar ichuri dugu ; Gure seruko aita ona akitatuko da egun bates oinase eta eskarmenta orori burus ; ardiesten eta onhesten daukularik sorion handi hau (Bildutasuna eta Bakea)

**64.** Adichkide maiteak ; Letra hau iskiribatsen dut atsegin handirekin ? Ni hemen preso bisi naisena ene maité orotarik berhechia eta urrundua Karga dolorosenen aspian desiratsen d(ut) orori eta manera beresi bates hunen irakurtseko ohorea duketener. Miserikordiako isarrak lagun detsan eta eman desoten galdu dutan pausa, Egun bakotchean sorion berri batekin

**65.** Akhabatsen dut ene letra segitseko memoria eskases ;

Senditzen ditut han utzirikako amen eta haurren deiadarrak. Gu han beharrez, egiten dituzten urratsak ikusten ditut. Badakit nola egiten dituzten beilak, eta bederatsi urrunak zeinek bere kartieretan, ahuspez Jainkoari galde egiteko itzul daitezen oraino bizi diren dohakabeak.

**61.** Mundarraingo mendian, Ainhoako kaperan, han du ene andre maiteak otoizten Maria. Eta heldu den urte oroz maiatzean Bidarteko Uronean. Nahiz zenbait grasia ihardetsi kontsolamendu apur baten goxatzeko, bainan orai artean hainbat aldiz deitu ondoan, ez du izan desir zuen zorionik. Zeren zeruetako eta lurretako nagusia ere, behere huntako gobernadoreak bezala, dagoen gure oihuei gogor eta mutu. Hala nola, grasia beren eske ibiltzen dira Baxenabartarrak Salbatoren eta Xiberotarrak San Antonen.

**62.** Hainbeste grina eta dolorez, gure nagusi soberanoa eta Jainko guztiz boteretsua urrikal gaitzala. Eta negarretan dauden arima onek atxeman dezatela aspaldian lehiatzen duten deskantsua.

**63.** Beraz, ene adiskide maiteak, hona hirur urte iraganik, laugarrenari lotuak gabela beti ber okagarrizko bizimendea segituz. Bainan oraiko orenean badugu denboraren bortxaz etorria esperantza apur bat gure damuzko orenetan jarraikitzen gaituena. Laster gureak, adiskideak, auzoak eta Euskual Herriko zeru urdina ikusiko dugulako esperantzaz bihotza gauditua dut. Izan zaitezte, beraz, ni bezala azkar eta dupiderik gabe. Ez da nigar egiteko denbora. Aski nigar ixuri dugu. Gure zeruko aita ona akitatuko da egun batez oinaze eta eskarmentu orori buruz, ardiesten eta onesten digularik zorion handi hau: Bildutasuna eta Bakea.

**64.** Adiskide maiteak, letra hau izkiribatzen dut atsegin handirekin. Ni, hemen preso bizi naizena, ene maite orotarik bereizia eta urrundua, karga dolorosenen aspian desiratzen dut orori, eta manera berezi batez hunen irakurtzeko ohorea duketener, miserikordia izarrak lagun dezaten eta eman diezaien galdu dutan pausa egun bakotxean zorion berri batekin.

**65.** Akabatzen dut ene letra segitzeko memoria eskases,

Desmasiasko, eta urrikgarrisko oren hautan ;  
Soinek tristatsen baitituste gure gogoak ; Ohiko  
orhoitsapen gochoak jarraikitsen saustalarik

Estigarri eta kontsolagarri

Suhas Antoine

desmasiazko eta urrikgarrizko oren hautetan,  
zeinek tristatzen baitituzte gure gogoak ohiko  
oroitzapen goxoak jarraikitzen zizkidalarik.

Eztigarri eta kontsolagarri,

Suhas Antoine